

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2013-07-01
ASTELEHENA
316. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Elgetako paella jan handiena

la 600 lagun batu ziren Ferixa Nagusiko herri bazkarian | 14



Herritarrek paella jaten. | I.S.

Zapatua ezkerro, martxan da berriz Bergarako San Pedro parrokia | 30



Anaje Narbaizak Bai Euskarari Laguna saria jaso du | 4



Sergio Gartzia nagusitu zen atzo Oñatin, Torreauzoko krosean | 22



Gaur joko dute gaina sanpedroek

Bazkaria, buruhandiak, ume eta nagusien danborradak, koadrilen arteko jokoak... Hori guztia eta gehiago izan da asteburuan Eskoriatzan. Hoberena baina, gaur jaiei amaiera emateko gorde dute: euskal jaia. | 12

Falcons de Villafranca castellers taldeak irudiak egin zituen atzo, domeka. Argazkian, bi zutabe osatzen agertzen dira. | GOIENA

'Bergara 1936, gerra eta errepresioa' DVDa prest dago



Grabazioaren une bat. | GOIENA

Intxorta 1937 Kultur Elkarteak egin du, orduko testigantzekin osatuta | 5

"Dermatologekin eztabaida dugu, baina eguzki pixka bat hartzea ona da hezurrendako"



Iñigo Etxebarria | Debagoieneko Ospitaleko Traumatologia zerbitziburua | 7

Taxi-bus zerbitzu berria gaurtik, Elgeta eta Bergara artean

Astegunetan izango da eta Lurraldebus edo Mugi txartelarekin ordainduko da | 20

☎ 943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK
www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com



Adrian Chohan eta Gorka Manso laguna, Korsikarako barkuarekin. | ADRIAN CHOHAN



Irlako mendatea igotzen. | A.C.



Paisaiari begira, talaia ederretik. | A.C.

Bizikleta, alforjak eta norbera: bidaiaria esperientzia berezia

Kirola eta turismoa uztartzen dituen oporretako plana da, probatuz gero errepikatzen dena normalean

JULEN IRIONDO | OÑATI

Udako oporrak badatoz eta hamai-ka izan daitezke egunok pasatzeko moduak. Etxe inguruan ibiliko dira batzuk, eta nonbaitera bidaiaria egingo dute beste batzuek, hegazkinez, trenez, kotxez... edo bizikletaz, batek daki.

Adrian Chohan oñatiarrak asko maite du bizikleta, asko maite du bidaiatzea, eta asko maite du bizikletaz bidaiatzea. Duela zortzi urte bizi izan zuen horrelako esperientzia bat lehen aldiz -Donejakue Bidea-, eta bi urtera errepikatu zuen: "Orain saiatzen naiz urtean bidaiaria bat behintzat egiten, nahiz eta luzea ez izan, hamar egunekoa edo. Sakratua da niretzat". Kostaldean

barrena egin ditu bidaiak, eta baita mendi inguruetan ere; biak erraz uztar daitezkeen lekuetan ere izan da, Korsikan adibidez: "Hara kanpin denda txiki bat eraman genuen lehen aldiz, eta oso polita izan zen".

Autonomia handiagoa eta etapak nahi izandako lekuan amaitzeko aukera ematen zien kanpin dendak; bestela, hostal eta aterpetxeetan egiten omen dute lo. Beno, eta tarteka hotelen baten ere bai: "Gogoratzen naiz Portugalen, hiru izarreko hotel bat; beherago hostal bat zegoen, normal bat. Lagunak esan zidan: 'Adri, hotelean galdetuko dut'. Eta nik ea nola galdetuko zuen han, ondoan merkeagoa izanda:

gu ez gara luxu zaleak. Baina berak galdetuko zuela eta galdetuko zuela. Azkenean, hoge euro-gatik gela eta *self service*-a".

Inprobisatzea gustuko

Besteak beste, horrelako pasadi-zoek egiten dute berezi bidaiatzeko modu hau; beste gauza asko ere badaude: "Zara zu, eta zure bizikleta, zure gustuko afizioa. Zoaz ikusten, leku desberdin pila bat ezagutzen, joanaz, bidaiatzen, eta inprobisatzen. Inprobisatzea asko gustatzen zait niri, gauzak datozen bezala egitea. Hemen bainu bat, hor hamarretakoa... Eta bizikletan bidaiatuta sorpresa asko izaten dira [gurekin egin-dako hitzordura ordenagailua

Harrera ona 'Pedalka'-k

Apirilean hasi eta oraintxe arte egon da ikusgai Goiena telebistan frantziar Alpeetako zeharkaldia jasotzen duen saioa. Harrera ona izan du ikus-entzuleen artean. Amaitu da saioa, baina nork daki berririk egiteko modurik izango ote den.

ESANAK

"Ez dut inor ezagutzen alforjekin bidaiaria egin eta esperientzia gustatu ez zaionik"

"Saiatzen naiz urtean bidaiaria bat egiten, motza bada ere; niretzat sakratua da"

ADRIAN CHOHAN | BIDAIA ZALEA

ekarri du Adrianek, eta Korsikako argazki bat erakutsi digu: txerri mordoxka errepide erdian]. Lagun batek, iaz, Alpeetan, zakuarrekin, aterperik gabe lo egin zueneko ere gogoratu du; izar euria zen gau hartan: "Hori ez da diruarekin ordaintzen".

Kanpoan lo eginda, alojamentua aurrez hartzen lanik ez; aterpean lo eginda ere, baina, badu bere arriskua erreserbak eginda joateak: leku jakin batera derri-gor iritsi beharra; eta faktore desberdinak egon daitezke hori zaildu dezaketena. Izan daiteke matxuraren bat eduki eta esportako denboran uste bezain beste kilometro ezin egitea; edo arazo fisikoren bat izan edo, besterik gabe, gorputzak ez ematea; edo eguraldia: "Pirinioetako zeharkaldia egin genuenean oso eguraldi ona egin zigun gehienez. Egun baten juntatu ginen beste bi adiskiderekin, eta haiek hartuta zeukaten gau hartarako lekua. Eta sekulako zaparrada hasi zuen. Geu ere zalantzan izan ginen, haiekin joan edo geunden lekuan geratu". Besteak ez ziren libratu; lotarako loturarik ez eta busti gabe pasa zuten eguna Adrianek eta bere lagunak: "Esan genuen: 'Gaurkoz nahikoa egin dugu, geratu gaitezen hemen lasai, dena ez da eta bizikletan ibiltzea'. Inportantea da momentu lasaiak izatea, momentua disfrutatzea".

Extremadurako, Andaluziako, Galiziako eta kantauriar kostaldeko parajeak ere ezagutu ditu Adrianek azken urteetan bizikletarekin. Aurten ere zer edo zer

aroztegia
arrascal

ETXETRESNETAN
RENOVE PLANA 2013

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com



SUKALDEAK
BAINUAK
ARMAIRUAK

Goiena RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKUA OÑATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan **20€-tik eguneko**
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM



Kanpin dendan, atsedean eta indarrak hartzen. | A.C.

Itsaso ertzean, hodei beltzaren azpian. | A.C.

egingo omen du, eta animatzen du jendea probatzera: "Ez dut ezagutzen inor esperientzia gustatu ez zaionik". Fisikoki ezin izatearen beldurrik ez izateko dio Adrianek: "Txipa desberdina da, egun dena duzu, gura denean geratu... Gorputzak asko ematen du, eta burua ere egin egiten da. Eta horrela bidaiatuta, egunak hainbesterako ematen du...!".

Bideoa ikusteko: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ADRIAN CHOCHAN | BIZIKLETAZ BIDAIATU ZALEA

"Jakin behar da norekin egin bidaiia"

Zazpi bidaietatik bi bakarrik egin ditu.

Horrela bidaiatzeak harremanak errazten ditu?

Bai, asko; eta, gainera, desberdina da inorekin edo bakarrik joan.

Bakarrik joanda askoz berba gehiago egiten duzu beste batzuekin. Zu gehiago irekitzen zara, eta



jendea ere bai zuri. Lagunekin joanda haiekin aritzen zara; beste batzuekin laurdena ere ez.

Bakarrik, ondo.

Bai. Eta bestela jakin behar da norekin joan.

Ordu asko dira elkarrekin, eta *feeling* berezia duzun norbait izan behar da.

Alpeetako edukiak, orain blogean

Pedalka saioa telebista bitartez eta *goiena.net*-en egon da orain arte ikusteko aukera.

Aurrerantzean, baina, bere bloga izango du *-blogak*.

goiena.net/pedalka-, eta bertan ikusi ahal izango dira

Alpeetako zeharkaldiko atal guztiak. Honez gain, ibilbideko esku-orrria jaisteko aukera ere

emango du, alojamenduen eta bestelakoen gaineko informazioa jasotzen duena.



Pedalka bloga. | GOIENA

Lanerako



Gertu!

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

Matrikula
uztailak 8tik 12ra

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
2013-2014

Eskaintza akademikoa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09





Manifestazioa, Kale Barriatik gora zihoala. | A.T.

Aniztasun sexualaren alde, kalera irten ziren Oñatin

Festa giroko manifestazio koloretsua egin zuten musikarekin alaituta, herriko kaleetan zehar

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Sexu-aniztasuna aldarrikatzeko, kalera irten dira aurten Oñatin. Egubakoitzean, ekainak 28, gay, lesbiana, bisexual eta transexualen harrotasun eguna ospatu zen eta egun horretan egin zuten manifestazioa. Manifestazio koloretsua izan zen, musikarekin

alaituta herriko kaleetan zehar egin zena, eta festa giroan egindako manifestazioan *Aniztasun sexualaren alde kalera* leloa zeukan pankarta eraman zuten eskuartean.

Oñatiko LGTBQ koordinadorakoak pozik gelditu ziren egunak emandakoarekin: "Bailarako jen-

dea ere etorri da manifestaziora, ez da manifestazio erraldoia izan, baina giro politoan ibili gara eta herrian zarata apur bat atera dugu, ikusi arazi ere egin gara eta balorazioa positiboa da", esan zuten Zigor Ibarzabal koordinadorako kide batek. Maite Irureta beste kide batek gaineratu zuen manifestazioak "kolorea" eman ziola herriari.

Elkarretaratze koloretsua

Manifestazioaren ostean, hileko azken elkarretaratzea egin zuten manifestazioan parte hartu zutenek eta baita beste herritar batzuek ere. *Armairutik kalera, espetxetik etxera* lelodun pankarta erabili zuten horretarako.

Eguna borobiltzeko, Dj festa egin zuten gaztetxean. Hala ere, egun horren aitzakian bestelako ekintzak ere egin dituzte astean barrena. Eguaztenean dokumental emanaldia izan zuten eta horren osteko mahai-ingurua "oso aberatsa" izan zela esan dute koordinadorakoek, izan ere, bertaratutakoek euren sentazioak partekatzeak aukera izan zuten. Egueneko zine-forumean ere gurtura egon ziren eta Ibarzabalek ekintza guztietan parte hartu dituzten pertsoneri eskerrak eman nahi izan dizkie.

Testigua, beste herri batera

LGBTQ koordinadorako ateak guztiendako zabalik daudela ere adierazi zigun Iruretak, koordinadorako kideak. Hala, testigua orain beste herri batera pasatzea da euren asmoa datorren urtean manifestazioa bailarako beste herri batean egiteko. Urtean barrena ekintza gehiago egiteko asmoa dutela ere aurreratu dute.



Hileko azken elkarretaratze koloretsua egin zuten egubakoitzean. | A.T.

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XIII. Saiakera saria

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gairi buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



2013

Anaje Narbaiza saritua, Elay enpresan euskararen alde egindako lan guztiagatik

A.T. | ANTZUOLA

1992an euskara plana abiatu zuen Antzuolako Elay enpresak eta lan munduko lehen esperientzia izan zen hura. Egun, euskara plana desagertu da Elayn, euskara egunerokotasunean txertatzea lortu baitute. Horretan guztian parte-hartze zuzena izan du Anaje Narbaiza bergararrak, eta horregatik, bere ibilbideagatik eta urteotan euskararen erabilera lan munduan normalizatzeko egindako

ekarpenagatik saritu egin du Bai Euskarari elkarteak. Rober Gutierrez elkarteko zuzendariak eman zion Bai Euskarari Laguna saria barikuan Durangoko Plateruenan.

Hunkituta jaso zuen saria

Narbaizak hunkituta jaso zuen saria eta Elay taldearen saria dela argi utzi nahi izan zuen. "Errekonozimendu handia da eta hunkituta gaude", azaldu zuen saria jasotzerakoan.



Narbaiza, Elayko beste langile batzuekin batera. | BAI EUSKARARI

Uribetxebarriaren osasun egoeraren txostena eskatu dute

Espainiako Barne Ministerioak eskatu du txostena, "epaileak erabaki egokia har dezan"

M.B. | ARRASATE

Iazko irailetik baldintzapean aske dago Josu Uribetxeberria arrasatearra, giltzurruneko minbiziagatik. Bada, haren osasunak onera egin duen ala ez jakiteko eskatu dute txostena, Jorge Fernandez Diaz Espainiako Barne ministroak jakinarazi duenez.

Espainiako Barne Ministerioak eskatu du Josu Uribetxebarriaren osasun egoerari buruzko txostena, Espetxe Zuzendaritzako Idazkaritza

Nagusiaren bitartez. Barne ministroaren esanetan, Espetxe Zuzendaritza Uribetxebarriaren egoeraren diagnostikoa egin zuen medikuekin egon da, arrasatearraren gaur egungo egoeraren berri izateko. Barne ministroaren arabera, komenigarria da jakitea euskal presoaren "pronostikoa baieztatzen den eta zein izan den haren eboluzioa" baldintzapeko askatasunean dagoenetik "epaileak erabaki egokia har dezan".



Atez atekoa eta etika berbagai

Oñati Zero Zabor taldeak antolatuta, egubakoitzean hitzaldia egon zen herriko kultura etxean. Antonio Casado da Rocha filosofo eta ikerlariak eman zuen hitzaldia, bera hernaniarra da izatez, baina Oñatiko familia ere badu eta Hernaniko esperientzia kontuan hartuta, atez atekoaz eta etikaz hitz egin zuen.

'Bergara 1936, gerra eta errepresioa' DVDa estreinatuko dute asteon Zabalotegi aretoan

Bihar aurkeztuko dute hedabideen aurrean Intxorta 1937 Kultur Elkarteak egindako lana

ZURIÑE V.D.M. / J. BEREZIBAR | BERGARA
Asteon aurkeztuko du Intxorta 1937 Kultur Elkarteak *Bergara 1936. Gerra eta Errepresioa* izeneko dokumentala.

Bihar egingo dute lanaren aurkezpen ekitaldia hedabideen aurrean. Bergarako udaletxean izango da eta bertan Bergarako Udaleko, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak ordezkariek hartuko dute parte.

Memoria historikoa iruditan

Memoria historikoa berreskuratzeko lanean buru-belarri sartuta dago Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. Hala, aurkeztuko duten *Bergara 1936. Gerra eta Errepresioa* dokumentalaren bidez nagusienek orduan jazo zirenak gogoratzeko eta gazteenek ezagutzeko aukera izango dute.

Lana burutzeko martxoan zehar zenbait egoera berregin zituzten Debagoieneko herritarren laguntzarekin eta horiek grabatu zituzten. Hori horrela, Bergara eta Elgeta zinema plato bilakatu ziren. Baina historiako pasarteetan antzezpenez gain, 23 bergararren testigantza hunki-



Martxoan egin zuten dokumentalaren grabazioko une bat. | GOIENA

garriak ere bildu dituzte eta haiekin osatu dute dokumentala. Haur edo gazte zireneko aurrez aurre ikusitakoaren testigantza mingotsak.

Bergara 1936: Gerra eta Errepresioa ikus-entzunezkoan hain-

bat gai jorratu dira: faxisten sarrera, Arrasateko errepublikazale baten fusilamendua, Ariznoa ikastolako liburuen erreketak, Osintxuko zazpi presoak... Oro har, memoria historikoa, iruditan erakutsia.

Asteburuan Zabalotegin

Uztailaren 6an eta 7an bina emaldi eskainiko dituzte Bergarako Zabalotegi aretoan; 19:00etan hasita euskarazkoa bertsioa emanango dute eta 20:00etan hasita berriaz, gaztelaniazkoa.

Bertan behera geratu da Olabarriak eman beharreko hitzaldia

Espainiako Kongresuan EAJ-ko diputatua den Emilio Olabarriak pentsioen gaineko berbaldia eskaini behar zuen gaur, astelehena, Arrasateko Kulturateko areto nagusian. Baina antolatzaileek, hau da, Gipuzkoako Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarteak kideek aditzera eman dutenez, bertan behera utzi behar izan dute jeltzaleak eman behar zuten *Mehatxatuta gaude gure pentsioak?* izeneko hitzaldia. Olabarriaren agenda izan da arrazoia.

Egubakoitza ezker abian da udako operazio berezia

Egubakoitzean ezarri zuen Eusko Jaurlaritzako Seguratasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak udako operazio berezia eta irailaren hasieran amaituko da. Denbora horretan 1.650.000 auto inguruk zeharkatuko dituzte Euskadiko errepideak estatu hegoalderantz, aditzera eman duteenez. Berritasunen artean, EAEko bide alternatibo guztiak jasotzen dituen mapa deskargatzeko moduan ipiniko dutela Trafiko Zuzendaritzaren webgunean.

Carrefour
GORBEIA



60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Abuztuaren 3ra arte

Oparia

% 10

Deskontua erregaletan

Trukagarria **AVIA** zerbitzugune hauetan:

- Arrasate
- Gasteiz: Foronda, Urartea kalea - 23 (Alibarra izkina) eta Zurbano.

3x2 5.000 produktu baino gehiago 3x2 promozioarekin

Uztailaren 15era arte

Doan
Autobideko bidesaria

Joan-Etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabarri Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



Gaurtik aurrera, gehiago ordaindu beharko da Euskadin botikengatik

Berrordainketa edo kopagoa ezarriko da gaur, uztailak 1, EAEko farmazia guztietan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskadin osasun txartela dutenek botikengatik gehiago ordaindu beharko dute -pentsiodunek ere bai; orain arte ez zuten ezer ordaintzen- aurrerantzean, gaur, uztailak 1, sartu baita indarrean botiken kopagoa edo berrordainketa. Halaxe agindu du Eusko Jaurlaritzak, Konstituzio-Auzitegiak bere dekretua atzera bota ondoren.

Euskadin bizi direnek 2011an zituzten errenten arabera ordaindu beharko dituzte. Ezer ordaindu behar izango ez dutenak hauek

dira: subsidiarik ez duten langabeak, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI, espainolez) dutenak eta kotizazio gabeko pentsioa kobratzen dutenak. Lan-istripuengatik edo lanbidearekin lotutako gaixotasunengatik erretzatzen diren botikengatik ere ez da errekargua ordaindu behar izango.

Norberaren errentaren arabera, gehiago edo gutxiago ordaindu beharko du. Hala, urtean 18.000 euro gordin baino gehiago irabazten duten langileek botikaren prezioaren erdia ordaindu behar-



Oñatiko farmazia baten, bezero bat atenditzen farmazialaria. | GOIENA

ko dute; orain arte, % 40. Urteko lansari gordina 100.000 eurotik gorakoa duenak % 60 ordainduko du.

Pentsiodunen kasuan, 18.000 euro arteko errenta dutenek % 10 ordainduko dute, hilean 8,14 euroko mugarekin. 18.000 euro baino gehiago eta 100.000 baino

gutxiago dutenek errekargu berbera (% 10) izango dute, baina hilean 18,32 euro ordainduko dute, gehienez. 100.000 euro baino gehiago jasotzen dutenek 61,08 euroko topea izango dute.

Gaixotasun kronikoak dituztenendako ez dago neurri berezirik ezta salbuespenik ere.

Prestazio edo dirulaguntza jasotzen duten langabeek ere gehiago ordaindu beharko dute medikamentuengatik: hain zuzen, langileen errekargu berbera aplikatuko zaie.

Osakidetzara konektatuta

Kopagoa aurrera eroateko eta kontrolatzeko, 423.000 euroko sistema informatikoa jarri da martxan Euskadin. Horren bidez, farmaziek jakin ahal izango dute pentsiodunak noiz ordaindu duen hilabete baten ordaindu dezakeen gehiena, berari ezarritako mugaren arabera, eta ordutik aurrera ez du farmazian ezer ordaindu behar izango, orain arte bezala.

Farmazia guztiak Osakidetzarekin sare bidez konektatuta egongo dira. Erabiltzaile bakoitzaren osasun txartelean edo errezetan agertzen den barra-kodearen bidez jakin ahal izango dute bere lan-maila eta errenta-maila.

Kalte "larria"

Pentsiodunen zenbait plataformatako kideek kale-agerraldia egin zuten eguenean Gasteizen, berrordainketak kalte "larria" egiten diela salatzen.

Zuriñe Lago | Energiaren Euskal Erakunde teknikaria

"A++ edo A+++ kalifikazioko etxetresna elektriko batekin, % 10 aurrezten da"

Etxetresnen eta leihoen Renove planak dira arrakastatsuenak, Zuriñe Lagoren esanetan

L.K. | ARRASATE

Energiaren Euskal Erakunde (EEE) Zuriñe Lagoren esanetan, Eusko Jaurlaritzak eta EEEK beste Renove plan bat egiteko unea zela ikusi zuten.

Etxetresna elektrikoaren eta leihoen Renoveek dute dotazio handiena. Arrakastatsuenak dira eta jen-

dearen artean hedatuena, horregatik horiek biek 1,5 milioiko aurrekontua dute, bai.

Dena dela, deskontuak lortzeko modua desberdina da: etxetresnen kasuan, guri atxikita dauden komertzioaren batera joan eta erosteko unean egiten dute

deskontua. Leihoen, galdaren eta instalazio elektrikoaren kasuan, lehenengo obra egin behar da eta, gero, fakturarekin, eskatzen diren baldintza guztiak bidali behar da dirulaguntza eskaera EEERA.

Jendea kezkatuta egon daiteke, ea dirulaguntza ailegatuko zaion...

Irailaren 30era arteko epea dago eskaera gure bulegoetara bidaltzeko, eta faktura epe horren barruan egon behar da. Egin dezatela ahalik eta azkarren, dirulaguntza bukatzen bada, nahiz eta epean aurkeztu, dirulaguntza gabe geratuko dira-eta.

A++ edo A+++ kalifikazioko etxetresna batek zenbat aurrezten laguntzen du?

Ez dago kopuru finko bat; segun zenbat orduan dagoen piztuta edo ze kontsumo daukan. Nor-



Zuriñe Lago, Arrasaten. | L.K.

maltzat hartzen dugu energiaren % 10 aurreztea.

Edozein etxebizitzarako dira egokiak Renove planaz alda daitezkeen galdarak?

Teknikoki, baliteke etxe guztietan ezin ipini izatea. Beharbada obraren bat egin beharko da.

Horrez aparte, erakundeendako ere dirulaguntza batzuk daude, ezta?

Bai, beste bost plan daude. Energia aurrezteko eta eraginkortasunerako planarekin, isolamendu termikoa jar dezakete hormetan eta teilatuetan; galdara orokorra alda dezakete eraikin osorako... Bigarrenik, energia berriztagarrietarako inbertsioetarako laguntza dago: eguzki plakak, biomasa galdarak...; hirugarrenik, garraio eta mugikortasun efizienterako dirulaguntza; laugarrenik, eraikinak eta argiteria publikoa berritzeko; eta energia-zerbitzu enpresek eta administrazioak kontratuak egin dituzten kasuetan, kontratuok aurrera eroateko laguntza.

Brasiliako estadio berria egiten lagundu du Ulmak

L.K. | OÑATI

Komunikabideetan presentzia handia duen Konfederazio Futbol Kopako azpiegitura baten bere ekarria egin du Oñatiko Ulma kooperatibak: Brasiliako Mane Garrincha estadioan, hain zuzen ere. Ekainaren 15ean, estadio horretan jokatu zen kopa hori inauguratzeko partidua, eta 2014ko Mundu Kopako zazpi partidu ere hantxe lehiatuko dira.

Ingeniaritza-soluzioekin eta aholkularitza teknikoarekin parte hartu du Ulmak estadio horren obretan. Bere azpiegituraren zati handi bat eraiki du: 46 metroko

288 pilare, 22 metro zabal den konpresio-eraztuna, eserlekuetarako 12 metro garai diren habeak eta Orma enkofratu sistemarekin egindako hainbat horma.

Peruko meatze handi bat

Latinoamerikan beste proiektu garrantzitsurik ere badauka Ulmak. Hala, Peruko Toromocho meatzaritza-proiektuan enkofratu eta aldamiu soluzio integrala ipini du bezeroaren esku. Peruren BPGren % 14 da meatzaritza, eta 4.500 metroko altueran dagoen Toromocho meatzetik 1,5 milioi tona mineral aterako dira.

Danobatgroup Errusiako nazioarteko azokan izan da

L.K. | ARRASATE

Lau egunean, joan den egubakoitzera arte, Moskun izan da Mondragon Korporazioko Danobatgroup, Tube Russia 2013 azokan. Bertan, OCTGrako (petrolio-industriarako hodi bereziak) bere soluzio eta teknologiak aurkeztu ditu.

Nazioarteko Tube Russia azokan 300 enpresa baino gehiago izan dira. Danobatgroup izan da Hego Euskal Herriko bakarra. Erakustailak gehienak Errusiakoak, Alemaniakoak eta Txinakoak izan dira. Italiako eta AEBetako asko ere izan dira.

Danobatek giltza eskura soluzioak eskaintzen ditu Api, Gost eta Premium hariztaketetarako, teknologia aurreratua hodi hariztaketetarako, kuplak mekanizatzeko lerro osoak eta Api, Gost eta Premium kuplak mekanizatzeko giltza eskura soluzioak. Danobatgroup-en esanetan, Tube Russia Errusiako azoka nagusia da hodiak mekanizatzeko makinak, hodiak eta osagaiak, lehengaiak, erabilitako makinaria, prozesuko teknologietarako erremintak eta auxiliarrak, neurketak eta kontrolerako teknologiak eta beste erakusteko.

10.200 biztanle gutxiago EAEn

L.K. | ARRASATE

Euskadik 10.222 biztanle galdu ditu 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko urtarrilaren 1era. Hain zuzen, 2.174.474 biztanle zituen urte hasieran. Nafarroak 638.390 zituen (-1.633).

Krisiaren eraginez, atzerriara jende gehiago joan zen Euskadira etorri baino: 13.963 emigrante gehiago egon zen etorkinak baino. Bestalde, Espainiatik jende gehiago etorri zen bizi izatera hementik hara joan baino: 3.648 gehiago.

Iñigo Etxebarria | Debagoieneko Ospitaleko Traumatologia zerbitzburua

"Dermatologoekin eztabaida dugu, baina eguzki pixka bat hartzea ona da hezurrendako"

- ▶ VIII. Osteoporosiaren Ikastaroak inguruko aditu onenak batu ditu Debagoiengan
- ▶ Etxebarriaren esanetan, osteoporosia prebenitu egin daiteke gaztaroan

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoieneko Ospitalean zazpi urte eman ditu Iñigo Etxebarria gasteztarrak. Traumatologia eta Ortopedia-Kirurgiaren Zerbitzuko arduraduna da. Debagoieneko VIII. Osteoporosiaren Ikastaroa egin berri da, berak antolatuta, eta Euskal Herriko eta Espainiako puntako adituak egon dira gurean.

Zortzigarren ikastaroa egin berri duzue. Pozik?

Bai. Urtero, osteoporosiaren gainean zer berri dagoen lantzen dugu. Nire interesa izaten da aditu garrantzitsuak ekartzea eta aurrez aurre elkarrekin hitz egitea. Jendea pozik dago ikastaroarekin, eta horrek aurrera jarraitzeko animatzen nau.

Ondo dakigu zer den osteoporosia?

Hezurra samur apurtzea eragiten du osteoporosia; hezurra hauskor egiten da. Urteetan aurrera egin ahala ager daiteke. Beste faktore batzuek lagundu egiten diote osteoporosiari: tabakoak, alkoholak, menopausia 45 urte baino lehenago izateak...

Osteoporosia artrosiarekin eta hezurren desgastearekin nahasten da. Baina osteoporosia ez du minik egiten, hezurra apurtzen ez bada. Beraz, helburu nagusia apurtu ez dadin lortzea da.

Emakumeen gaixotasuna den ustea dago.

Gehiago izaten dute emakumeek, bai. Euskadin, mokorra apurtu duten 2.000 paziente baino gehiago ditugu urtean, eta % 75 emakumeak dira. Estrogenoek hezurra babesten dute, menopausia izan arte. Gizonezkoengan, prozesua isilagoa da, baina ondorioak larriagoak dira.

Hezurra apurtze horrek ze beste ondorio ditu?

Mokorra apurtzen dutenen kasuan, ebakuntza egiten diegun pazienteen % 5 ospitalean bertan hiltzen dira, % 20 ebakuntza egin eta lehenengo urtearen barruan hiltzen dira, eta % 60-70ek ez dute funtzionaltasun osoa berreskuratzen. Prozesu larria da eta jende askok ez du ondo ulertzen; bakarrik hezurra apurtu duela eta segituan berriz lehenengo moduan ibiliko dela uste dute. Baina pazientearendako agresio handia da: ospitalera joatea, ingresatzea, ebakuntza egitea, bere girotik kanpo egotea, botikak...

Osteoporosiarekin, gehien, mokorra, eskumuturra, sorbalda eta ornoak, bertebrak apurtzen dira, eta aztarna funtzionalak uzten dituzten apurturak dira:



Iñigo Etxebarria, ospitaleko bulegoan. | LEIRE KORTABARRIA

eskumuturra ezin du ondo mugitu eta min ematen dio; ornoen kasuan, gero eta makurtuago dago eta bizi-kalitate txikiagoa du; mokorra apurtzeak heriotza arriskua dakar...

Gizonezkoengan zergatik dira, bada, larriagoak ondorioak?

Gehiago hiltzen dira, guregana etorri orduko kalte handiagoa dutelako. Emakumeak, orain arte behintzat, bizi-kalitate hobea izan du, horregatik bizi da luzaroago. Orain arte, tabakoa, toxikoak... gizonezkoengan ohikoagoak ziren. Orain, emakumeak gizonezkoen parean daude, eta beharbada etorkizunean ikusiko ditugu horren ondorioak.

Ikastaroan, pediatriaren ikuspuntuarene landu zenuten...

Askoren iritziz, osteoporosia zahartzaroan agertzen da baina adin pediatrikoan, umezaroan eta nerabezaroan sortzen da. 30 urte arte, hezur-masa irabazten dugu; batez ere nerabezaro aurreko urteetan, hezurak bentaja handia egiten du. Fase horretan, gazteek kirola egitea, ez erretzea eta alkoholik ez edatea oso garrantzitsuak izan daiteke hezur-masa ahalik eta handiena izateko.

Toxiko horiez gain, beste faktore batzuk daude; esan bezala, menopausia goiz izatea; bestalde, hezur-rari kalte egiten dioten boti-

ka asko daude, kortikoideak, esaterako, gaixotasun erreumatikoe-tan asko erabiltzen direnak; horrez gain, amak mokorra apurtu izanak edo, adibidez, norberak eskumuturra apurtu izanak beste hezurren bat apurtzeko arriskua handitzen du. Nola jaten dugun ere eragin dezake; zenbat kaltzio eta zenbat D bitamina hartzen dugun -eguzkiak bakarrik du D bitamina-, sedentarioak garen...

Horrelako datuak jakinda, osteoporosia izan dezakeen bat antzeman dezakegu.

Beraz, prebenitu daitekeen gaixotasuna da.

Hori da ideia, bai. Hezur-masa irabazten den adina da garrantzitsua. Hori eta gero, beharbada

ezin izango dugu masa handitu, baina ahalik eta gutxien galtzen ahaleginu gaitzake: ohitura toxikoak begiratu, eguzki pixka bat hartu... Horretan, eztabaida dugu dermatologoekin, baina, nire iritziz, eguzki pixka bat ona da; eguraldi onarekin, eguzkiak jo diezagun mahuka motzarekin irtetea oso garrantzitsua da. Labur esanda: bizimodu osasuntsua egin behar da, esneki nahikoa hartuta, eguzkiak eman diezagun, eta ariketa fisikoa egin.

30 urtetik aurrera, esnekiak edo kaltzioa hartzeak laguntzen du?

Hezur-masa gutxiago galtzen laguntzen du, bai. Dena dela, zenbat eta kaltzio gehiago hartu, orduan eta hezur osasuntsuagoa

izango dugun uste hori ez da guztiz zuzena. Egunean hainbeste kaltzio hartu behar da, bai; egunean esne edo esneki litro batekin nahikoa da. Baina hori baino garrantzitsuagoa da eguzki pixka bat hartzea, bizimodu aktiboa izatea eta arrisku-faktoreak zaintzea.

Ikastaroko beste ideia bat hauxe izan zen: osteoporosia gastu handia dakarrela.

Bai. Mokorra apurtu duen paziente bat atenditzen, ospitaleko atetik sartzen den momentutik, 12.000 euro gastatzen dira. Gastu handia da. Botikek ere gastu bat dakar. Gero, zeharkako gastuak daude: bizi-kalitatea galtzea, norbera mendeko bihurtzea, zaintzaila behar izatea... Zeharkako gastu horiek, askotan, ez dira zenbatzen.

Lehen arretan ondo diagnostikatzen da osteoporosia?

Bai eta, gainera, lehen arretako medikuaren papera oso garrantzitsua da, ia gaixotasun guztietan bezalaxe, pazienteak ezagutzen duelako eta haren familia ingurunearekin harreman bat duelako. Oso garrantzitsua da pazienteak ez jaustea, eta berdin dio mokorra jausi aurretik edo jausi ondoren apurtu duen. Pertsona nagusi batek, kostata mugitzen denak, izan ditzakeen oztopoak zaindu behar dira: alfonbrak, dutxako arriskuak, logura ematen duten botikak... Lehen arretako medikua pazientearen etxera joan daiteke, badaki ze beste gaixotasun dituen... Hezurra apurtu duenean ikusten dugu guk pazienteak, baina lehen arreta oso garrantzitsua da gaixotasunarekin pazienteak zelan konpontzen den bideratzeko.

Ze tratamendu ematen dira gehien gaurko egunean?

Apurturak txikitzeko botikak daude. Askotarikoak dira eta paziente bakoitzari ondoen dator-kiona eman behar zaio, tratamendua jarraitu egingo duela ziurtatuz, izan ere, tratamendua ipintzen zaien pazienteen erdiek, urte bete, utzi egiten dute, eta tratamendu horiek epe luzerako dira; hortaz, hasi eta urte betera utzi egiten badu, dirua alperrik galtzen gabilta.

Zertan aurreratzen da gehien, azkenaldian?

Batez ere, gaixotasuna ezagutzen eta fisiopatologian. Oinarrizko ikerkuntza handia dago eta oso interesgarria da hori. Gaixotasuna modu globalean gero eta gehiago ezagutzen ahalegintzen gara ikastaroan.

"Osteoporosia zahartzaroan agertzen da, baina umezaroan sortu"

"Gazteek kirola egitea, ez erretzea eta ez edatea garrantzitsuak da"

"Eguraldi ona dagoenean mahuka motzarekin irtetea ona da"

"Mokorra apurtu duen pazienteak 12.000 euroko gastua dakar"

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA
http://goiena.net/iritzia/



Infernua, emakumeena

Norbaitek bertan sortua dela pentsa balezake ere, ehun urte pasatxo heldu ei zen trikitia Euskal Herrira. 1889koa da trikitiaren gaineko lehenengo aipamen idatzia, Juan Carlos Guerra arrasatearrarena. Soinu txikiak dantza lotua ekarri ei zuen berarekin eta kronikak diotenez, elizaren zein erakundeen kontrolatik ihesi, auzo eta erromeria-leku aparteeetan bota behar izan zituen sustraia.

Zenbaitzuegan sortzen zuten gaitzespen horren erakusle dira soinuari berari jarri izan zaizkion gaitzizenak: Infernuko hauspoa, Txerren-hauspoa...

Eta trikitia bera moralaren eta ohitura onen aldetik gaizki ikusia bazen, zer esanik ez emakumeak trikitilari izatea.

Aurretik ere dezente izan ziren, batez ere, emakume pandero-joleak, baina, lehen aipua hartatik ehun urtera, 1988-89 bueltan, iritsi ziren emakumez eratutako lehenengo trikitilari bikoteak: Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider.... Maixak berak azaldu izan duenez, ez ei zuten eurek ere hasiera erraza izan. Ez etxean eta ez euren idolo ziren trikitilariengandik ere ez ei zuten animo eta bultzada handirik jaso. Baina gauzak aldatu dira.

Orain dela hamar egun Arrasateko Trikitilari Elkartearen ikasturte amaierako ekitaldian izan ginen Amaia antzokian. Maixa bera zeremonia-buru, ehun bat lagun igaro ziren oholtzatik, ume eta gazte pila bat eta baita heldu mordoxkatxo bat ere: %80tik gora emakumezkoak. Eta, seguru jakin barik, esango nuke Arrasateko antzera izango dela Bergaran eta Oñatin, Antzuolan eta Aretxabaletan... Eta trikitian bezala, dantzan, abesbatzetan, aisialdiko begirale lanetan eta kirola ez den beste ekimen guztietan...

Gaur egun, Maixa eta Ixiar hasi eta 25 urtera, emakumeek eragiten diote infernuko hauspoari. Eta ausartuko nintzateke esaten gaur eta hemen eurek eragiten diotela munduko hauspoari ere. Bejondeizuela!

"Euren idolo ziren trikitilariengandik ez ei zuten animo handirik jaso"

USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

San Juan suaren bueltan

San Juan bezperako illuntzian sanjuan suak ikusi genittuen gure herrixetan, auzuetan eta mendixetan. Gau magikua izaten da. Udako solstiziua ospaketan da, nahiz eta udako benetako solstiziua ekainaren 21ian izan. Usadixuak dixuenan arabera, urteko bizipen txarrak sutan erre eta barrixei paso emuteko gaba izaten da. Neuk be hoixe egin neben. Azken hillabetietako bizipen gogorak sutan erre eta datozenak gogoz eta ilusiñoz hartzeko inddarrak batu nittuen. Su batzuk itxungi eta beste batzuk ixutu egitten dian moduan, bizitzan be batzuk fan eta beste batzuk etorri egitten dia. Itxungittako suaren garrak, baiña, uda hotz honetan oindiok be berotuko gaittu!

KALE INKESTA

Gay eta lesbiana bikoteak normal onartzen ditugu?



UGUTZ ROSADO
ARETXABALETA

"Berdin ikusten ditut bikote guztiak. Egia da, gazteok gay eta lesbiana bikoteak helduak baino normaltasun handiagoz onartzen ditugula".



INAKI ARANA
ESKORIATZA

"Nire ustez, normalizaziora iritsi gara. Jendeak naturaltasunez eta normaltasun osoz onartzen ditu bikote hauek eta beste guztiak".



ESTI LLODIO
ARETXABALETA

"Bikote guztiak normaltasunarekin onartzen ditugu. Gure belaunaldiak, batez ere. Bada ordua, gaia natural tratatzeko".



IBAN ORALDE
ESKORIATZA

"Atentzioa ematen dit bikote gay bat musuka kalean ikustea. Oraindik arraroa da. Beraz, normaltzat onartzea kosta egiten zaigu".

HANDIK ETA HEMENDIK

Abiada batean

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Tarte honetantxe aipatzen genuen [...] Galizia aldean web telebistako proiektu kitzikagarri bat jarri berri zutela martxan, Galiza Ano Cero. Irabazi asmorik gabekoa, kode ireki eta lizentzia librekoa, behetik eta ezkerretik eginga. Bestelako telebista bat, alegia. Geroztik egin dute mugimendurik: eman digute eztabaida pilotu bat –demokrazia kontzeptuaren gaurkotasunaz–, erakutsi dute lehen elkarrizketaren lagin pare bat –Boaventura de Souza soziologo portugaldarrekin–, egiten ari dira aurkezpenak, eta, besteren gainetik, eskatu dute dirua, jadanik gorrotagarri bilakatzen ari diren crowdfunding horietako baten bitartez. Baina proiektuak merezi duenez, neuk ere jarri dut aletxo. Eta 15 egunen faltan, mila euro baino gutxiago eskuratu behar dituzte web telebista martxan jartzeko. [...]

Baina garai batean –eta gaur egunean?– Euskal Herrian gertatzen zen –gertatzen den?– moduan, ematen du Galizian ere gauzak bikoiztuta egiten

dira: Galiza Ano Cero jaiotzen ari den garaitsu berean, beste web telebista bat, Irmandade.tv ere jaiotzen ari da. Eta bigarren horren berri izan dugu, lehenaren bestera, euskarazko prentsaren bidez: "Informazioa demokratizatu, nazionalismoari ahotsa eman eta gizarteari bere ondorioak ateratzeko aukera eskaintzeko" helburua duela irakurri ahal izan dugu Argia-ko webgunean. Ados. Oso ondo. Baina ikusi dituzue jarri dituzten lehen debateak? Alde estetikoak bakarrik, ez zaizkizue iruditzen moderno itxura eman nahi duen partidu politikorietako baten telebista batekoak? "Gure ildo editoriala subiranista eta ezkertiarra da", aitortu dute Irmandadekoek, eta lepoa jokatu nuke ordena horretan izango dela; nola bestela? Patriotikoezia, nire gusturako. "Proiektua modu informalean sortu zen, bi garagardoren bueltan", eta ez nuke baztertuko, jada gintonicetarako, Galiza Ano Ceroren kontrapisu gisa baliatzea erabaki izana.

Hara, ez nator hona bataren edo bestearen alde paratu behar dela esatera. Biak ikusgarriak izan daitezke, edo, auskalo, bietako bakar bat ere ez. Baina neronek, orain

artekoak ikusita, abiada batean egin dut aukeraketa.

'Step Back to Glory', euskaraz

Joxe Aranzabal
blogak.goiena.net/farao/

Azken asteetan hiru eskutara jardun dugu *Step Back to Glory* filmaren azpigituluak itzultzen (eta horretan Goio Arana, Luistxo Fernandez eta hirurok aritu gara), lehenbailehen nahi genuen-eta emaitza bistaratu, filmak kontatzen baitu istorio bat sokatira txapelketa baten inguruan, bertan Euskal Herriko neska talde bat ere agertzen dela. Sokatiralari euskaldunak –Badaiotz herrikoak, arabarrak– bukaeran baino ez dira agertzen, Munduko Txapelketako finalean.

Film moduan ez da beste munduko ezer, baina bertan atentzioa eman dit txinatarrek duten lan etikak. Baita guraso, irakasle eta entrenatzaileen aurrean duten errespetuak, batzuetan gehiegizkoa nire irudirako. Filma berri-berria da, eta bertan euskaldunak ere protagonistak dira. Ea gustatzen zaizuen.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendaria nagusia Iban Aranzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urteizel (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Monika Belastegi
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifiano, Ziortza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutxane Gaintzarain,
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordinuak: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

SAN PEDROAK ETA FERIXA NAGUSIXA



GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | JAIK: SAN PEDROAK 2013, ESKORIATZAKO JAIK ETA FERIXA NAGUSIXA, ELGETAKO JAIK
ASTELEHENA, UZTAILAK 1, 20:15 ETA 23:00 | TXOMIN MADINAK AURKEZTUA

GOIENA TELEBISTA | JAIK: SAN PEDROAK 2013, ESKORIATZAKO JAIK ETA FERIXA NAGUSIXA, ELGETAKO JAIK
EGUBAKOITZA, UZTAILAK 5, 22:30



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Mari Carmen Etxebarria | EAJko Hezkuntza zinegotzia Elgetan (1983-1991)

- ▶ Lehenengo emakumezkoa izan zen Elgetan zinegotzi kargua hartzen
- ▶ Bi agintaldi egin zituen karguan eta hezkuntza kontuez arduratu zen, gehienbat
- ▶ Ahizpak hartu zuen erreleboa eta gaur egun alaba ere Hezkuntza zinegotzia da

"Esperientzia ona izan zen, baina lan handia ere bai, eta ezin da denon gustura gobernatu"

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Mari Carmen Etxebarria Ormaiztegin bizi izan zen bederatzita urte bete arte. Hala eta guztiz ere, Elgetako kontu askoren berri du, eta gustatu egiten zaio, gainera, oroitzapen horiek guztiak gorde-tzea. Elgetako argazki zahar ugari ditu etxean, benetako artxiboa. Bi agintaldi egin zituen Udalean. Gero, ahizpa batek hartu zuen erreleboa, eta, urte batzuen buruan, alaba da orain Hezkuntza zinegotzia. Aipamena merezi duen beste kontu bat: eskola ondoan bizi da. Beti bizi izan da eskola ondoan.

Zein izaten zen zure zeregin nagusia udal ordezkari karguan?

Hasierako urteetan ikastola genuen herrian, eta hilean bitan elkartzeko ginen andereñoekin haien arazoekin eta premien berri izateko. Gero, eskola publikoa zabaltzea lortu genuen, eta asko aldatu ziren gauzak.

Zergatik?

Ikastolarekin gurasoen lana eta inplikazioa oso handia zen. Tonbola antolatuta, kartoiak batu... dirua behar zen andereñoak eta ordaintzeko, eta taberna ere bage-nuen. Txandaka egiten genuen lan aste bukaeretan.

Gaur egungo eskolaren eraikina udal ordezkari zinela egin zen, ezta?

Bai. Ez da batere polita, baina hortxe dago. [Barre]

Urte nahasiak izan ziren 80ko eta 90eko hamarkadetakoak, ezta?

Bai. Egoera politikoa nahasia zen, eta gero, alderdi barruan, Carlos Garaikoetxea lehendakari-zatit kendu zuteneko urteak izan ziren haiek. Elgetako udalbatzan ere ondorioak izan zituen



Mari Carmen Etxebarria etxeko balkoian. | LZ.

horrek: EAJko bi ordezkari EAra pasatu ziren.

Elgetan, zinegotzi kargua hartu zuen lehenengo emakumezkoa zara. Garrantzitsua da zuretzat?

Ez dakit ba! Kargua hartu nuenean esan zuten, bai, lehenengo emakumea nintzela, baina eguneroko lanean normaltasun osoz egiten genuen lan. Alderdiak jendea

behar zuen zerrendak osatzeko, eta horrela sartu nintzen.

Oso lanpetuta ibiliko zinen.

Noski. Elkoronean nenbilen lanean, Ozkarbiko elkarte idaz-



Errepideen egoera ere kezka iturri zen: irudian, Izarrako buelta. | ARTXIBOA

"Mugimendu handiko urteak izan ziren, eta dirua zegoen"

"Zorionez (...) beste mentalitate bat zegoen; auzolan handia egiten zen"

kari izatea ere egokitu zitzaidan urte haietan... Gainera, hiru seme-alaba... Egia esan, ia gauero nuen zerbait. Ez dakit etxean nola aguantatu ninduten!

Euskaraz egiten zenuten udaletxean?

Ez, dena gazteleraz. Oso jantziak ginelakoan, nonbait! [Barre] Zorionez, aldatu egin dira gauzak!

Urte haietan egindako ze proiektu dituzu gogoan?

Gogoan dut, esaterako, San Roke eta Maala kaleetako galtzada-harria berriro zenekoa. Aldundiko ordezkariak etorri ziren inaugurazio ekitaldira, eta tartean zen Xabier Lete. Joan egin behar izan zuen, aita gaizki zegoela eta dei bat jaso zuelako. Pagatzako industrialdea ere urte haietan egin zen. Eskola berria, Domingo Iturbe kaleko lehenengo etxeak, farmazia berria, Udal Liburutegia... Egia esan, mugimendu handiko urteak izan ziren, eta dirua zegoen: diru asko etorri zen Diputazioetik eta Jaurlaritzatik.

Oroitzapen onak gordetzen dituzu, orduan?

Denetik egon zen. Esperientzia ona izan zen, baina lan handia ere bai, eta ezin da denon gustura gobernatu. Eta kobratu, ezer ere ez! Zorionez, jende arduratsua genuen inguruan, eta beste mentalitate bat zegoen; auzolan handia egiten zen. Esaterako, Bilboko uholdeen ostean jende asko joan zen Elgetatik laguntzera. Baita Bergararik ere. Astebete egin zuten bertan.

Zure alaba, Ana, Elgetako Hezkuntza zinegotzia da gaur egun. Aholkurik-edo eskatu dizu?

Aitortu behar dut ez dugula gaieren inguruan barbarik egiten.

Passat Alltrack

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto.

HERRIAK



Jesus Agirre auzo alkatea Ama Birjina ondoan duela. | A.E.



Ama Birjina berriro aurretik. | ARTEZ RESTAURACION

BERGARA

Andre Mariak itxura berria du

XIV. mendeko Ama Birjina berritua San Juan jaietan aurkeztu zuten; Artez enpresak egin ditu lanok

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Bergarako San Juan auzoko Ama Birjina zaharberritu egin dute. Erromaniko gotiko garaikoa da, eta Gipuzkoako Ama Birjinen katalogoan, zaharrenen multzoan kokatuta dago. XIV. mende bukarakoa eta XV. hasierakoa da Andre Maria.

San Juan auzoko bizilagunek gaur egun duten arazo nagusia ermitako teilatua konpontzea da. 2011ko abuztuan ermitaren albo baserria erre egin zen eta horrekin batera baita ermitako teilatu zati bat ere. Arazoari konponbidea eman nahian, auzotarrek Obieta elkarte sortu zuten, San Juan auzoa jorrazteko elkarte. Jendeak parte hartu eta kontzientzia har dezan, hainbat ekimen egin gura dituzte; horietako bat, Ama Birjina berritzea izan da.

Andre Mariaren egoera

Zurezko taila da, polikromatua. Ama Birjina eserita dago, haurra belauetan duela. Esku batean bola bat darama eta beste esku-

rekin haurra heltzen du. 25x72x18 zentimetroko irudia da. Irudia XVII. mendearen bukaera aldeko erretaula barrokoan ipinita dago.

"Irudiaren egoera nahiko kaskarra zen, batez ere pipiak janda zegoen", azaldu du Jesus Agirre

auzo-alkateak. Zaharberritze lanak Bergarako Artez enpresako Aida Payá eta Maite Fernandezek egin dute, 580 bat euroren truke.

"Taila nahiko egoera onean zegoen baina polikromia ez. Lehenengo izoztu egin genuen, pipiaren aurka lan egiteko; ondoren,

galduta zegoen polikromia guztia bete genuen; eta, azkenik margotu egin genuen", dio Payák. Gaineratu du gaur egunera arte irudia ez dela ukitu; eta, hori ez dela ohikoa izaten: "Normalean norbaitek margotzen ditu". Zaharberritzean Rigattino teknikarekin margotu dute irudia: "Teknika horrekin, urrunera, ez da ezer nabaritzen; baina gertutik ikusiz gero konturatzen zara zaharberrituta dagoela eta margoa ez dela originala, marratxo batzuk izaten ditu".

Irudia XIV mendekoa izan arren, polikromia gerora egindakoa da: "Ohikoa zen taila egur kolorean uztea; handik 200 urtera edo, auzoan dirua zegoenean margotu egiten zuten", dio Agirrek. Ama Birjinak koroa falta du eta haurrak, aldiz, bi eskuak.

Erretaula berezia eta polita

San Juan auzoko ermitako erretaula ere "oso polita" da. XVII.

ESANAK

"Irudiaren egoera nahiko kaskarra zen; batez ere, pipiak janda zegoen eta hori konpondu dute"

JESUS AGIRRE | AUZO ALKATEA

mende amaierakoa da. Agirrek azaldu digu polikromia oso polita eta berezia duen erretaula dela, nahiz eta pipiak janda egon. Aurrerantzean, dirua izanez gero, erretaula berrituko litzateke.

Ermita auzoarena da

Auzotarrek gaur egun duten arduraren nagusia teilatua konpontzea da. "Lan asko eskatzen du", gaineratu du Agirrek. Hori horrela, Udalarekin harremanetan daudela esan du. "Udalak beharrezko materiala ordaindu eta auzoak esku lana ordaintzea izango litzateke egokiena", dio auzo alkateak. Teilatua auzo lanean konpontzea nahiko arriskutsua izango litzatekeela uste du: "Teilatuak altuera handia du eta arriskutsua izan daiteke". Eraikuntza finkatzea da auzotarren ardura.

Agirrek esan du ermita auzoarena dela: "Hori diote 1810eko eskriturek, eta eskrituretan ere argi azaltzen da auzotarren beharretarako izango dela ermita, ez bakarrik meza esateko". Gaur egun, San Juan egunez bakarrik ematen da meza San Juan auzoko ermitan.

San Juanen irudia ere berritua

San Juanen burua erretilubaten gainean dagoen irudia ere berritu egin dute. Bergarako Bitoriano Larrañaga antikuariok eta auzoko emakume batek egin dituzte lanok. "XVIII. mendekoa dela diote baina Larrañagak dio erretiluko letrak geroagokoak direla". *Caput Joannis in disco* esaldia agertzen da erretiluan. Pipiaren aurkako tratamendua eman diote irudi honi ere.



San Juanen burua. | A.E.

Jai herrikoiak baino, herriak egindako festak izan dira sanpedroak

- ▶ Ikuskizun guztiek oso harrera ona izan dute
- ▶ Kalea izan da San Pedro jaietan protagonista

IMANOL GALLEGO | ESKORIATZA

Benetako udarekin batera iritsi dira aurtengo San Pedro jaiak. Lainoak urrundu bezain pronto bete ziren Eskoriatzako kaleak. Festarako gogoia zegoela atzema- ten zen eta festen hasiera iragartzen zuen txupina bota bezain laster atsedenerako toki gutxi egon da Eskoriatzan. Nagusien danborren hotsek argi utzi zuten bezala, Eskoriatzan festak ez dira txantxa.

Goiz partean gautxorien lekua familiek hartzen zuten bitartean guztiek sanpedroez gozatzeko aukera ugari izan zituzten.

Castellersak jaso zuen domeka

Orio eta Eskoriatzaren arteko elkarlanari esker etorri zen Falcons de Vilafranca Castellers taldea. Parrokia ingurutik plazaraino figura ikusgarriak egin ondoren jendez lepo zegoen plaza ahozabalik utzi zuten. Lau urtetik gorako 60 bat castellers etorri ziren Kataluniatik lehen aldiz Eskoriatzara eta ikuskizunak izan zuen harreraren ostean, ez da azken aldia izango.

Domeka arratsalde gaztea

Astea gazteek amaitu dute. Bazkal ostean koadrilen arteko jokoei

hartu zituzten Eskoriatzako hainbat txoko. Inperdible eta Txirrotutako Uranioak koadrilen arteko lehia, neke eta algara ugariren ostean, Inperdible irabazi zuen. Ostean, nagusiek egubakoitzean egin zuten bezala, txikien danborradak herriko kaleak alaitu zituen.

Nahi duenak baina, gaur ere, egun osoan zehar ederto pasatzeko aukera bat baino gehiago izango du. Mari Errauskini gertatzen zaion bezala, gaueko 12:00etan egingo duten burrunbadarekin agurtu beharko dituzte aurtengo San Pedro jaiak.



Lehen gauean danbor hotsek, kaleak ezezik, plaza ere bete zuten.



Maribi Carrillok irabazi zuen aurtengo lore lehiaketa.



Nagusiek bezala, txikiek ere gogotsu jo zuten danborra.



Ederto pasa zuten koadrilek III. bandera lortzeko jokoetan.




IKER PAVON ETA IÑAKI MUGIKA

"Arrasaten San J uan jaietan gora eta behera ibili ostean orain Eskoriatzara gerturatu gara. Oso jai ezberdinak diren arren, hemen ere, primeran pasatzeko aukera mordoa dago".



JENI ALBERDI ETA SINEAD NELSON

"Ez gara Eskoriatzakoak baina hemengo giroaz gozatzeko askoarekin etorri gara. Herri txikia den arren oso festa onak ditu eta ekintzez gain, jendearekin oso harreman ona dugu".



AINARA ABASOLO, KERMEN TORRES ETA JON TORRES

"Duela urte batzuk jaiak gaez gozaten genituen baina orain, semearekin gauzak asko aldatu dira. Gaurko honetan arratsalde pasa etorri gara. Orain txintxoak izatea tokatzen zaigu, hala ere, ziur ez garela batere aspertuko!".



Sortuko dira besteak ikuskizunak arrakasta handia izan zuten.



Barrakek ez zuten hutsik egin eta gazteek gogotik disfrutatu zuten.



Batukadak etorkizun oparoa dauka.



Buruhandiek eta gazteek gogotik egin zuten korrika.



Falcons de Vilafranca Castellers taldeak eskoriatzarrak liluratu zituen.



Txistularien kalejirak bat baino gehiago ohetik atera zuten.



Haizeak zaildu zuen txupina piztea . | ARGAZKILARIAK: SORIANO, ARANTZABAL, GALLEGO



TOMAS RUBIO

"Jende gutxiago dagoela esango nuke, baina gauean zarata handia egon da. Hala ere, ni ez naiz etxean geratzen den horietakoa".



ARITZ, MARKEL, AXEL, JON, XABI, BEÑAT ETA PABLO

"Sanpedroak festa izugarriak dira! Egun eta gau guztia petardoekin zarata egiten eman dugu. Aurten barraketan gutxiago ibili gara nahiko garestiak dira-eta. Hala ere, ezer gastatu gabe lagunekin egotea ere ez da plan txarra".



MARTA, HAIZEA, NAGORE, PAULA, LEIRE, SARA ETA MARIA

"Primerako festak dira sanpedroak. Momentu oro, zerbait egiteko aukera dago. Gu bakarretan, kontzertuetan, postuetan... izan gara. Ekintza piloa dago. Gainera koadrila guztia hemen gaude eta gauean ordu biak arte irten gara, kontzertuak izugarriak izan dira".



Ganadua ikusten izan ziren herritar ugari domekako Ferixa Nagusixan.



Euskal dantzak dantzatu zituzten herriko gazteek estreinakoz, zapatuan.

Gogotsu ospatu dituzte aurtengo Ferixa Nagusiko jaiak Elgetan

Zapatuko paella janean ia 600 lagun batu ziren, inoiz baino gehiago, eta Vendettaren kontzertuak ere zale ugari erakarri zituen barikuan

AMAIA TXINTXURRETA | ELGETA
Eguenean, ekainak 27, hasi zituzten jaiak Elgetan eta atzo, domeka, eman zieten amaiera. Aurtengoan gainera, izan da berrikuntzarik. Izan ere, zapatuan estreinakoz Elgetako haur eta gazteok euskal dantzak egin zituzten Herriko Plazan. Udaberrian hasi zuten euskal dantzen ikastaroan parte hartutako gazteok dantzatu zuten, eta guraso, familiarterko eta herritar ugari izan ziren dantzak ikusten. Euren saioa hasteko, gainera, aureskua dantzatu zieten aurre-

ko urteko jaietatik aurtengoetara herrian jaio diren umeei. Jaioberriei udaletxean egindako ongi etorriaren ondoren izan zen hori.

Zapatuko paella janean ia 600 lagun batu ziren, "inoiz baino gehiago", Oxel Erostarbe alkatearen esanetan. Eta jende asko erakarri zuen beste ekitaldi bat izan zen barikuko Vendetta taldearen kontzertua; inguruko herrietako jendea bertaratu zen Elgetara hori ikustera.

Urtero egiten den asto karrean, berriz, aurten lau parte-har-

tzaile izan ziren eta hiruk bukatu zuten lasterketa; Mikel Beretxinaga izan zen irabazlea, azken urteetan bezala.

Atzo, domeka, egin zen Ferixa Nagusixa eta herritarrek ganadua eta artisauen postuak ikusi zituzten, besteak beste.

Balorazio positiboa

Oxel Erostarbe alkateak jaien balorazio positiboa egin du: "Ondo joan dira jaiak, oso parte-hartzaileak izan dira, eguraldiak ere lagundu du eta ekintza guztiak oso ondo irten dira", esan du.



Mikel Beretxinaga, asto karrerako irabazlea, helmugara iristen.



Jubilatuek bazkaria egin zuten barikuan Espaloian.



Haur jaioberriei ongietorria egin zieten udaletxean, zapatuan.



Gozokiak saltzen, domekan.



Zapatuko bazkari herrikoian koadrilla bat paella jaten eta topa egiten.



Egueneko mozorro egunean, koadrilla bat Azken Afaixa irudikatzen.



Pablo Manso, alkate txikia.



Zezen mekanikotik jausten. | ARGAZKILARIAK: IMANOL SORIANO, JOSETXO ARANTZABAL ETA IMANOL GALLEGU

BERGARA

San Martzial eguna lagun giro ederrean ospatu dute bergararrek beste urte batez

Mahaien inguruan jarrita, lagunaren arteko tertulia egiteko aukera izan zuten bertaratutakoek; prestatuta joan ziren nahikoa jan eta edarirekin

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Atzo, domeka, izan zen San Martzial eguna eta goizean goizetik hasi zen jendea San Martzialera igotzen; batzuk oinez eta beste batzuk autobusez edo autoz igo ziren. Urtero bezala, San Martzial jendez bete zen.

Lagun koadrilak mahaien bueltan tertulian egin zuten hamarretakoa; txistorra, urdaia edo antxoak jan zituzten, besteak beste. Karramarroak edo barraskiloak sukaldatuta ere eraman zituzten beste batzuk.

Urteroko aureskua ikusten ere adin guztietako jendea izan zen belardian. Horren aurretik, Juan Mari Narbaizak eta Jose Luis Gorrotxategik bertsotan egin zuten, eta musikaz girotu zuten eguna Lizarrako dultzainariak, Zumarragako trikitilariak, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Incansables txarangakoek. Abesti herrikiok ere entzun ahal izan ziren kantina ondoan eguerdian.

Umeek uretako pistolekin jolastu zuten eta gazteak txirrolartara jokatzeko ere ibili ziren. San Martzial festa gaueraino luzatu zen askorendako.



Jaione Isazelaia alkategaia, aureskua dantzatzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Gizonak, plater tiroan. | IMANOL SORIANO

Antzuolan ere ospatu zuten eguna

Antzuolako Lizarraga auzoko San Martzial jaien barruan, hainbat ekintza egin dituzte aurten ere. Ekintza horietako bat izan zen zapatuan egin zuten plater tiroa. Bertaratu zirenak, eskopeta eskuan hartu eta platerak tirokatzen ibili ziren, argazkiak ikus daitekeen bezala. Giro onean, ederki ospatu zuten eguna aurten ere Lizarraga auzoan.

ANGEL ZABALETA
BERGARA



"Egun berezia da bergararrondako. Txikitatik etortzeko ohitura geneukan eta lagun artean ospatzen dugu orain. Oso ondo pasatzen dugu".

MIKEL ZUBIZARRETA
BERGARA



"Ostegunean mahaiak muntatzera etorri ginen eta 22 lagunendako prest daukagu guztia. Familia eta lagunekin disfrutatzera etorri gara".

MARIASUN EGUREN
BERGARA



"Hamarretakoa tertulian egin dugu gustura eta egun guztia pasatuko dugu hemen. Bazkaldu ere lagun artean egingo dugu, baita afaldu ere".

PEDRO BIXENTE
BERGARA



"San Martzial jaiak mundialak dira, primerakoak. Berakatz sopak prestatzen ditut urtero hemen eta koadrila eta lagun ugari etorri gara".

Promociones
Erregetxo Plaza
Bergara



Bergarako hirigune historikoan
63 etxebizitza, libre, tasatu,
BOE, garaje eta lokalak

INFORMAZIO ETA SALMENTA:
ORTELBAR, S.L.: 943 76 11 18
LOTZEN, S.L.: 943 76 11 23

GARAIZ ZABILTZA!


Bergarako hirigune historikoan
2, 3 logelako etxebizitzak.

- ✓ Lehenengo mailako materialak
- ✓ Sukaldaritza

Etxebizitza TASATU eta BOE tarako
zozketan parte hartzeko
izen emate epea zabalik

Azken eguna, 2013ko Uztailak 17, Asteazkena.
UDALETXEAN

- Babes ofizialeko 12 etxebizitza
 - Babes publikoko erregimen tasatuko 13 etxebizitza (garajearekin batera)
- Informazio gehiago:**
www.promocioneserregetxoplaza.com
www.bergara.net





Lehen egunetan jende gutxi ibili da kanpoko igerilekuetan. Soroslearen arabera, gaurtik aurrera hasiko da jende gehiago animatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

Udako kanpainaren lehen egunetan jende gutxi ibili da, urtero moduan

Sorosleak esandakoaren arabera, bainurako ura hotza dago oraindik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ekainaren 25ean ireki zituzten Musakolako kanpoko igerilekuak. Azken egunotan eguraldiak hobea egin duen arren, oraingoz jende gutxi dabil: "Datorren asteetik aurrera [asteon] ziur jende

gehiago etorriko dela. Ura hotza dago oraindik bainurako; gainazalean 20 gradu eta behealdean 18 bat gradu izango ditu", adierazi digu sorosleak. Igerilekuak irailaren 8ra arte egongo dira zabalik baina Aukeako ardura-

dunen arabera, eguraldi ona egingez gero irailaren 15era arte irekiko dituzte. Udako bonuen prezioak honakoak izango dira: haurrendako 39,25 euro, helduendako 65,90 euro eta bonu familiarra 105,20 euro. Egun baterako

sarrera, berriz, haurrek 3,35 euro ordaindu beharko dute eta helduek 5,90 euro. Erabiltzaile askok kanpoko zein barruko igerilekuak aldi berean irekita izateko eskatu izan dute baina, Aukearen arabera, "inbertsio handia" supo-

'Freskura!', hirugarrenez

Hirugarren urtez, *Freskura!* egitasmoa jarriko du abian Txatxilipurdik. Helburua da euskal jolas eta irakurgaiak eskutik eskura ibil daitezen eragitea. Udaleko Euskara Sailaren, Aukearen eta Goiiena, Argia, Berria, Gaztezulo, Irrien Lagunak eta Aizu! argitalpenen laguntzarekin antolatu da ekimena. Astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara, ateri bada jolasak eta irakurgaiak maileguan doan hartzeko aukera egongo da. "Hainbat sorpresa" izango direla aurreratu dute.

satzen du: "Makinarian inbertsio handia suposatu luke eta pertsonal arloko gastuak bikoiztu egingo liriteke", adierazi dute Aukeako arduradunek. Kanpoko igerilekuen ordutegia urterokoa izango da: 10:00etatik 20:30era.

Gehienez, 860 lagun uretan

Kanpoko hiru igerilekuetan 860 pertsona sartzen dira –handian 560 lagun, ertainean 200 eta txikian 112–. Metro kubikoei erparatuz gero handiak 2.000 metro kubiko dauzka, ertainak 250 eta txikiak 30.



Errementari Dantza eta San Juan sua; jaietako irudi bereziena. | JARANTZABAL

Kepa Urteaga, Kultura eta Jaietako zinegotzia: "Zorionak Arrasate!"

J.B. | ARRASATE

Udala pozik dago San Juan jaietan izan den parte hartzearekin: "Arrasate eta arrasatearrak zoriondu nahi nituzke, eurei esker egiten dira-eta San Juan Jaiak: herritarrek eginga eta, argi ikusi denez, herritarrentzat", adierazi du Kepa Urteaga Kultura eta Jaietako zinegotziak. Arrasate Irratian egindako elkarriketan onartu zuen San Juan egunean "beherakada txiki bat" izan zela, baina orokorrean jaiak "arrakastatsuak" izan direla uste du: "Esan dezakegu jaiak oso jendetsuak izan direla. Istripu txikiren bat izan zen erre-kortadorean erakustaldian eta

goizero zezen plazan hainbat harrapaldi izan dira, baina ez da istripu larririk izan. Jai lasaiak izan dira; oraingoz ez dugu kexa larregi jaso".

Kanporako joera txikitzen?

Parte hartze prozesua txalotu dute zenbait herritarrek, Urteagaren arabera: "Egindako lana zoriondu digu batek baino gehiagok". Badirudi, bestalde, Salou edo Benidormera joateko joera gero eta txikiagoa dela: "Kultura Sailean lanean ibili garenondako, egon garen ekitaldietan jende asko elkartu da. Herritik kanpo zenbat jende egon den ez dakigu".

Udaleku irekiak gaur hasiko dira; itxiak, berriz, datorren astean

J.B. | ARRASATE

Uztailean sartu gara gaur eta hilabete honek udalekuetarako garaia esan gura du Arrasateko zein bailarako hainbat haur eta gaztetxorendako. 2 eta 10 urte arteko haurrendako udaleku irekiak gaur bertan hasiko dira. Aurten 234 umek eman dute izena, iaz baino 19 gutxiago. Astelehenetik egubakoitzera, goizero, denetarik ekintzak egingo dituzte herriko kaleetan zehar.

Berramosten ekimenari eutsiz, ekintzak haurren nahien arabera antolatzen saiatuko dira Txatxilipurdiko begiraleak, euren autonomia bultzatuz.

Itxietan ere gaztetxo gutxiago

Datorren astean hasiko diren udaleku itxietarako 12 eta 17 urte arteko gaztetxo gutxiago daude. Iaz 147k eman zuten izena, 128

Arrasatekoak. Aurten 105 dira guztira, 86 arrasatear: Zerainera 32 joango dira –22 arrasatear–, Oriora 40 –guztiak arrasatearrak–, Garaiora 25 –arrasatear 1– eta Kosta ala kosta ekimenara 24 –15 arrasatear–. Udaleku itxiak Jar-dun eta Pil-Pilean euskara elkar-teekin batera antolatzen ditu Txatxilipurdik. Ondo pasa!

DATUA

234

HAUR UDALEKU IREKIETAN

Aurten 234 haurrek hartuko dute parte udaleku irekietan, iaz baino 19 gutxiago

105

GAZTETXO UDALEKU ITXIETAN

105 gaztetxo aurten udaleku itxietan. Horietatik 86 izango dira arrasatearrak.

Elkarretaratzea egunean, justizia soziala aldarrikatzeko

Justizia soziala aldarrikatzeko elkarretaratzea egingo dute egunean, hilak 4, Portaloian (19:00). Antolatzaileek honakoa diote deialdian: "Krisi hau ez dugu guk sortu, eta ez dugu guk ordainduko". Arlo publiko defendatu gura dute: "Eraso sozialei erantzuteko batu gaitzen eta sor dezagun babesleku soziala", diote.

Zaldibarko 24 orduetan izena emateko aukera, uztailearen 10era arte

Zaldibarko 24 orduko futbito txapelketan izena emateko epea irekita dago. Uztailearen 13an jokatu da txapelketa eta uztailearen 10a baino lehen eman behar da izena. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu beharko du eta bi modu daude izena emateko: zaldibarko24orduak@gmail.com helbidera idatzita edo 637 787 441 telefonora deituta.

Irteera antolatu du Besaidek Demandako mendilerrera

Besaide mendizale elkar-teak irteera antolatu du Demandako mendilerrera. Iaz hainbat lagun elkartu ziren eta aurten errepikatzea erabaki dute. Uztailearen 13 eta 14rako antolatu dute irteera eta izena eman gura duenak gaur, bihar edo etzi pasa beharko da Besaideko bulegotik, 19:30etik 20:30era.

Bisita gidatuak, estazio megalitikoak ezagutzeko

Familiei zuzendutako izaera ludikoko jarduera-tailerrak ere egingo dituzte

AMAIA TXINTXURRETA | BERGARA

Azken urteotan Elgoibarko, Sorauluzeko eta Bergarako udalak lanean ari dira Elosua-Plazentzia estazio megalitikoak balioan jartzeko, Debegesak zuzendutako proiektua jarraituta. Horren emaitza izan da Dolmenen Ibilbidea, 2013ko udaberrian martxan jarritakoa. Baina estazio megalitikoaren promozioa ez da hor amaitzen.

2013ko udan eta udazken hasieran bisita gidatuak antolatuko dituzte estazio megalitikoak ezagutzeko; atzo, domeka, egin zuten lehenengo bisita gidatua. Eta familiei zuzendutako jarduera-tailerrak ere egingo dituzte aurrerantzean.

Bisita gidatuak

Euskal artzainen eta nomaden aztarnak jarraituta, ibilbide "ikusgarri bezain interesgarria" antolatu dute. Gida espezializatu baten laguntzarekin, arbasoen ezagutzan sakondu ahal izango da bisitarren. Ibilbidean geldialditxoren bat egingo dute inguruko gazta dastatu eta artzain kulturara



Talde bat tumuluak bisitatzen. | IÑAKI IRIZAR

gerturatzeko. Hamaiketako horretan, eskualdeko gazta gain, sagardoa eta ogia dastatzeko aukera ere egongo da.

Ibilbidea Karakate gainetik Irukurutzetarainoko joan-etorria

da, bederatzi kilometrokoa, eta hiru ordu eta erdi inguruan egiten dena. Ibilbidea "erraza" da, antolatzaileen esanetan.

Bisita gidatuaren gai nagusia Elosua-Plazentzia estazio megalitikoak da, eta besteak beste, hitz egingo da bertan dauden megalitoei eta garai hartako bizimoduari buruz. Indusketa arkeologikoen emaitzak ere ikusi ahal izango dira bisitan. Gainera, inguru horretako geologia, flora eta fauna ezagutzeko azalpenak emango dituzte gidariek.

Esan bezala, lehenengo bisita gidatua domekan egin zuten, eta ondorengo egunetan ere eskainiko dituzte bisitak: abuztuaren 11n eta irailaren 22an gaztelaraz eta urriaren 20an, berriz, euskaraz, hain zuzen ere.

Jarduera-tailerrak

Haurrak dituzten familiei daude zuzenduta jarduera-tailerrak. Izaera ludikoa dute tailerrek eta jolasean ikastea dute helburu. Arbasoak nola bizi ziren ulertzen lagunduko dute tailerrek, eta bertan, euren biziraupen eta ehi-zarako teknikak, sinesmenak eta artzaintza-lanak erakutsiko dituzte, besteak beste.

Bergaran irailaren 29an (gaztelaniaz) eta urriaren 6an (euskaraz) egingo dituzte tailerrak. Gorlako Iturrigorri aisialdigunean egingo dira tailerrak eta 4 urtetik aurrerako umeendako izango dira egokiak. Bi ordu eta erdi iraungo dute eta helduek 15 euro eta haurrek 10 ordaindu beharko dituzte.

Informazioa eta izen-emateak Bergarako Turismo Bulegoan edo Debanatura elkartearen egin ahal izango dira, 943 77 91 28 edo 943 19 11 72 telefonora deituta.

Uztailean ikastaro ugari izango dira KZgunean

A.T. | BERGARA

KZgunea sareak teknologia berriei buruzko doako zerbitzuen eta ikastaroen katalogo zabala eskainiko du uztailean herritarrendako.

Ikastaroak

20 orduko oinarritzko Internet ikastaroa eskainiko dute hilaren 8tik 19ra bitartean, 18:00etatik 20:00etara, gaztelaniaz. Bestalde, bi orduko ikastaroak ere eskainiko dituzte: bata, lainoko informatikari buruz hilaren 9an, 16:00etan hasita, eta bestea, ordu berean, hilaren 29an, Ebay-ri buruzkoa. Bi ikastaro horiek euskaraz izango dira.

Bestetik, argazki-ukituak bizkor, erraz eta modu dibertigarrian egin nahi dituzten erabiltzaileei zuzendutako Kizioa *on line* editoreari buruzko ikastaroa ere egingo dute euskaraz, hilaren 2an, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Youtuberi buruzko jakintza handitu nahi dutenentzako, berriz, horri buruzko ikastaroa egongo da hilaren 11n, euskaraz, 16:00etatik 18:00etara bitartean. Eta, beraz, sare sozial horretan nola ibili erakutsiko dute egun horretan KZgunean.

Software libreaki dagokionez, ostera, Open Office Writer testu prozesadorearen aukerak ikasi ahal izango dira hilaren 16an eta 17an, 16:00etan, euskaraz. Eta Impres-i buruzkoak ere ikasi ahal izango dira, hilaren 22an, 16:00etan hasita, euskaraz baita ere.

Horrez gain, informazioaren teknologietan oinarritzko gaitasuna ziurtatzeko IT txartela atera ahal izango da hilaren 18an, 18:00etan. Txartela aterata ziurtatzen da pertsona horrek informaziorako tresnen eta Interneten gaineko ezagutzak dituela.

Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 943 02 36 26 telefonora edo, bestela, sartu www.kzgunea.net izeneko atarira.



MIZPIRALDE EGOITZA

Mizpirualdekoak Altzasun

Aurreko zapatuan, ekainaren 22an, joan ziren Mizpirualde egoitzatik Altzasu elkartera bazkaltzera, hango zuzendaritzak gonbidatuta, urtero bezala. Mizpirualdetik esan dute primeran pasatu zutela eguna eta eskerrak eman nahi dizkiete elkarteko bazkide guztiei egindako harreragatik.

TXALOAK ETA TXISTUAK



MONIKA BELASTEGI

Torrekuako pilotalekuan txapa falta



Herritar batek kexa bat jarri nahi izan du. Dio Torrekuako pilotalekuan txapa falta dela aspalditik. Dagoeneko urtebete dihardu udaletxean bueltaka txapa jartzeko eskatzen, baina, oraindik ere, Torrekuako frontoia txapa barik dago. Herritarrek eskatzen du, mesedez, Torrekuako pilotalekuko txapa jartzeko.



txarrantxa
jatetxea

- Astegunetan EGUNeko MENUA (9,50€)

- Ostiral eta larunbatetan
PLATER KONBINATUAK, KARTA...

Egun berezietarako (Bataioak, kintadak...) bazkari/afariak egiten ditugu.

Zubiaurre 33. BERGARA
☎ 943 761 584

SUBIJAI

0 eta 16 urte bitarteko neska-nutrientzat arropa

DESKONTUA 30% eta 50%
DESKONTUA

lotzum confetti paz
3pommes® QUIKSILVER Timberland ELSY

Irizar Pasealekua 1 - BERGARA - Tel.: 943 76 42 41



Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformako kideak udalbatzaren aurrean, mozioa irakurtzen. | OIHANA ELORTZA

Udalak 100.000 euro banatuko ditu emergentzia kasuen artean

EH Bilduren aldeko botoekin onartu zuten dirua banatzeko udal ordenantza

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Udalak 100.000 euro banatuko ditu aurtun, emergentzia kasuen artean. Bada, diru hori banatzeko araudia aurreko asteko osoko bilkuran onartu zuten, aho batez.

Udalak larrialdietarako dirua banatzeko erabiltzen dituen parametroak, Eusko Jaurlaritzak zehazten dituenak dira. Larrialdien bat duten edo emergentzia egoeran daudenak laguntzeko

dirua ematen du urtero Eusko Jaurlaritzak. Aurtun, 43.000 euro emango dizkio Oñatiko Udalarari. Baina, Udalak berak 100.000 euroko laguntza dauka zehaztuta aurrekontuetan.

Immersoren oporraldietako izen-ematea zabalik dago

Bidaien, prezioen eta ezaugarrien gaineko informazioa Gizarte Zerbitzuetan jaso daitezke

M.B. | OÑATI

Immersok nagusiendako antolatzen dituen oporraldietako izen-ematea epea zabalik dago uztailearen 12ra arte. 2013ko urritik 2014ko ekainerako bidaien eta prezioen gaineko informazioa eta inskrip-

zioak, Gizarte Zerbitzuak Bidebarrietan duen bulegoan egin daitezke.

Immersok hiru bidaia mota eskaintzen ditu: egonaldiak kostaldean (Mediterraneo aldean, Balearretan edo Kanariar Uhar-

teetan), nekazal-turismokoak eta kultura ibilbideak.

Norberak aukeratzeko duen eskaintzaren arabera, prezioak aldatu egiten dira: lekuaren eta urte sasoiaren arabera, dezente garestitzen da bidaia. Garestiena Kanariar Uhartetako 15 eguneko egonaldia da. 600 euro balio du.

Itxaron-zerrendan

Informazioa jaso ondoren, bidaiaren baten parte hartu gura dutenek, izen-emate eskaera Gizarte Zerbitzuetan utzi beharko dute.

Hori horrela, Udalak Jaurlaritzak ematen duena baino 57.000 euro gehiago banatuko ditu. Bada, gehiegizko diru hori arautuko duen udal ordenantza da azkeneko osokoan onartu zena. Alegia, formalismo hutsa izan zen.

Udal ordenantza hori onartuta, 100.000 euroak banatu ditzake Udalak. Gizarte Zerbitzuetara heltzen diren laguntza eskaerak aintzat hartuta banatzen dute larrialdietarako dirua.

Ordenantza horrek aurtengo laguntza banatzeko balio du. Hurrengo urteko dirulaguntza zenbaterainokoa den jakin ondoren, akaso, beste arautegi bat onartu beharko dute.

Mozioa, onartuta

Aurreko asteko osokoan, Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformako kideen bisita izan zuten. Plataformako kideek HMEI indizea ordezkatzeko eskatzen duen mozioa aurkeztu zioten udalbatzari. Hipoteka-mailegu baten interesak kalkulatzeko erabiltzen den indizeetako bat da HMEI, eta ia azko apirilaren 28ra arte erabil zitezkeen. Egun hori pasa ostean banku zerbitzuek etorkizunean erabil dezaketzen indizeak jakinarazi zituzten baina HMEIaren kasuan ez zen hala izan.

Hori salatzeke, eta HMEI indizea desagertzeko eskatzeko mozioa aurkeztu zuten. Mozioa onartu egin zuten ekaineko osoko bilkuran: EH Bilduk mozioaren alde bozkatu zuen, eta EAJ abstenitu egin zen.

Udal langileak arduratuko dira eskaerak bidaltzeaz. Uztailearen 12rako jasotzen diren eskaeren artean banatuko ditu Immersok lekuak. Norberari egokitu zaion bidaiaren gaineko informazioa irailan banatuko dute.

Egonaldia lortzen dutenek, ordainketa egin beharko dute irailan, Immersok esandako lekuan eta egunean.

Leku barik geratzen direnak, itxaron-zerrendan ipiniko dituzte. Urtean zehar egon daitezkeen hutsuneak betetzeko, bidaia ajentziaren deia jasoko dute.

Tourreko bi etapa ikustera joateko autobusak

M.B. | OÑATI

Markel, Garmendia eta Odrizola lagunartek Frantziako Tourreko bi etapa ikustera joateko autobusak antolatuta dituzte. Uztailearen 6 eta 7ko etapak izango dira eta izena emateko azken eguna, gaur, astelehena da. Interesatuak Oñatiko Lizarralde kirolak (943 78 29 86) dendan eman behar dute izena: 12 urtetik gorakoek 75 euro, eta 13tik gorakoek 150.

Uztailearen 6ko etapak (Castres-AX 3 Domaines) 195 kilometro ditu, eta uztailearen 7koak (Saint-Girons-Bagnères de Bigorre) 168,5.

Haur liburutegia goizez bakarrik zabalik

M.B. | OÑATI

Oporren eraginez udal zerbitzuetako batzuk ordutegia egokitu beharra izan dute. Besteak beste, haur liburutegiak. Eskolak bukatuta goizez bakarrik zabalitzen dituzte, uztailearen 24ra arte: astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara arte. Abuztuaren itxita egongo da txikiendako liburutegi zerbitzua. Aldiz, nagusien liburutegiak goiz eta arratsalde zabalduko du uztailean (10:00-13:00 eta 17:00-20:00), eta abuztuaren goizez (09:30-13:30).

350 neska-mutikok hasi dituzte udaleku irekiak gaur

Milakoloz blai leloarekin hasi dituzte udaleku irekiak 350 neska-mutikok. Uztailearen 26ra arte askotariko ekintzak egingo dituzte adinka banatuta: herri kirolak, entzierroak, olinpiadak, ibilaldiak, eskulanak... Udaleku irekiak 10:00etatik 13:00etara egingo dituzte. Egoitza Eteo zaharra izango da: han utzi eta jaso beharko dira umeak.

Udako kirol kanpainako bigarren txandan lekua dute

Udako kanpainako bigarren txanda –uztailearen 8tik 19ra– lekua dute hainbat kirol eskaintzatan; besteak beste, mini-tenisean, tenisean, badmintonen, patinajeon, mendiko bizikletan, eskaladan, pilotan, jolasetan, zaldietan, eta ingelesezko jolasetan. Uztailearen 3a da izena emateko azken eguna.

TXALOAK ETA TXISTUAK

Herriko ondarea zaintzeko eskaera

 Herriar batek Oñatin azken aldian egin diren pintada "handien" gaineko kexa bidali digu. "Ez nago pintada horietan jasotzen den mezuaren kontra, baina, bai erabiltzen duten letra tamainaren eta pintadak egiten dituzten lekuaren kontra", esan digu. "Pintadak herriko ondarea diren eraikinetan egiteak ez dauka zentzurik. Herriko ondarea zaindu behar dugu", gaineratu du.



ESKORIATZA

Euskal Jaiarekin amaiera emango diete gaur aurtengo sanpedroei

- ▶ Aspaldi egiten zen buruhandien txirrindulari lasterketa izango da eguerdian
- ▶ Santa Mariñen egingo den herri bazkarian 300 lagun elkartuko dira

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Azken txanpan sartu dira Eskoriatzako sanpedro jaiak. Asteburua luzea izan da, baina, hala eta guztiz ere, gaurko egunerako indarrak gorde dituzte eskoriatzarrek, Euskal Jaia dute-eta gaur

zain; batzuek jaietako egun politena. Urtero moduan, txistularien kalejiraren ondoren, eguerdi partean plazan izango da giroa. Herriko talogileak jo eta su dabil-tzan bitartean, egarria asetzeko asmotan herritarrek sagardo

kupelaren bueltan elkartuko dira. Taloa eta sagardoa esku artean dutela, musika eskolako dantzarien emanaldia ikusiko dute.

Laster amaituko da giro lasaia, 13:30ean buruhandien txirrindulari lasterketa hasiko da-eta toki

berean. 1940ko hamarkadan ateratako argazkia aprobetxatuta, lasterketa berreskuratzea pentsatu dute jaietako antolatzaileek; ikusmina, behintzat, piztu du ekimenak. Buruhandi zaharrak eta egungoak aterako dituzte, zazpi bat guztira; parte-hartzaileek bizikleta eroan behar dute.

Kantu txapelketa

Hori amaitzean, Santa Mariñerantz abiatuko dira 300 bat eskoriatzar; ordurako gertu izango dute bazkaria. Atsedean handirik ez dute izango, bazkaldu ostean apar festa egingo dute-eta han; eta hori amaitzean, kantuan egiteko bakoitzak duen trebetasuna erakutsi ahal izango du. Aurten, sanpedroetako kantu txapelketa antolatu dute plazan, zortzigarrenez. Bakarka edo taldeka igo ahal izango dira kantariak. Jaietako amaiera emateko modu ederra.

GAURKO EKIMENAK

UZTAILAK 1

11:00 Txistularien kalejira.

12:30 Talogileak eta sagardo kupelak plazan.

12:30 Musika Eskolako dantza taldearen emanaldia plazan.

13:30 Buruhandien txirrindulari lasterketa.

13:30 Trikitilari Eskolako ikasleekin kalejira.

14:30 Bazkaria Santa Mariñen.

17:30 Apar festa Santa Mariñen.

19:00 Kantu txapelketa plazan.

22:30 Akerbeltz taldea plazan.

24:00 Jaietako bukaerako bandera jaitziera eta trumoiakada.

Umeentzako parkea kiroledegiparean (13:00-14:00 eta 17:30-20:30)



Harrotasunaren Egunaren bueltan ostadar bandera jarri zuten. | JUAN LUIS MERINO

Sexu-aniztasunaz harro daudela agerian utzi dute Eskoriatzako udaletxean

Ezker Anitzak aurkeztutako mozioari erantzunez, hilaren 28an ostadar bandera jarri zuten balkoian

M.B. | ESKORIATZA

Egubakoitzean, ekainak 28, Gayen, Lesbianen, Transexualen eta Intersexualen (LGTBI) Harrotasunaren Eguna izan zen, eta, hori dela-eta, aniztasunaren ikur den ostadar bandera eskegi zuten Eskoriatzako udaletxeko balkoian. Aipatutako kolektiboaren esku-deekin eta berdintasunaren aldeko apustuarekin duen konpromiso sendoa erakutsi gura izan zuen Udalak horrela.

Ekimen hori joan den martitzeneko osoko bilkuran Ezker Anitzak horren gainean aurkeztutako mozioaren ondotik dator; udal ordezkariek guztiek horren alde bozkatu zuten, Elizateetakoak izan ezik, betiko moduan, abstenitu egin zen-eta. Bandera balkoian jartzearekin batera, beste hainbat proposamen ere onartu zituzten: Harrotasunaren Egunarekin bat egiten du, eta LGTBI elkarteak ospakizun eta errebin-dikazioekin, eta sexu joera edo

identitateagatik LGTBI pertsonen mundu osoan "etengabe jasaten duten bazterkeriaren aurka" dagoela adierazten du.

Horrez gain, Madrilgo Gobernari eskatzen dio sexu egoera edo identitatearengatik beraien herrietan jazarrita egoteagatik "bizitza arrisku larrian zutela egiazatatu ondoren" asiloa eskatuta zuten pertsonen asilo hori ukatzeko erabakia zuzendu ditza-lan eskatzen dio, eta baita pertsona transexualen gizartratzea eta laneratzea ere. Azken horren harira, laneratzeak plana egiteko konpromisoa hartzen du.

Osasunari dagokionez, Eskoriatzan bizi diren immigranteek osasun publikoan ostera estaldura unibertsala emateko eskatzen dio Madrilgo Gobernari; eta irakaskuntzaren arloan, Jaur-laritzari gizartratzearen diren maitasun eta sexu aniztasun ikuspegia irakaskuntzan sartze-ko eta gazteen artean aurreiritzi

eta jarrera homofobikoak desagerrarazteko eta horiei aurrea hartzeko ekintzak indartzeko eskatzen dio.

Eguno legea ez aldatu

Bestalde, Ezker Anitzak haurdunaldia borondatez etetea erabakitzeko emakumeen duten eskubideen gaineko mozioa ere onartu zuten osoko bilkura berean. Horretan emakumeen oinarriko eskubideak ez erasotzeko eta egun horren gainean dagoen lege organikoak ez aldatzeko eskatzen zaio Espainiako Gobernuari.

Honakoa ere exijitzen da mozio berean: borondatezko abortua zigor gabetzea, emakumeen gaitasun osoa bermatzea beraien amatasunari eta bizitzari buruzko erabakiak hartzeko, egoera irregularrean dauden etorkinei haurdunaldia borondatez etetea osasun prestazioak emango zaizkiela bermatzea eta horren gaineko protokolo komuna martxan jartzea.

Hipoteka indizea

Beste mozio bat ere onartu zen martitzeneko: Debagoieneko Kaleratzeak Stop plataformarena, HMEI (IRPH, espainolez) hipoteka-indizearen gainekoa. Bertan, Eskoriatzako Udalarik eskatzen dio Kutxabank presiona dezan HMEI indizea Euribor+1 indizearekin ordezkari dezan. Plataformak salatzen du HMEI indizea dagoeneko ez dela ofiziala eta Kutxabankekin sinatutako hipoteka-mailegu kontratuetan esaten zela HMEI desagertzen zenean Euribor+1 indizea erabiliko zela horren ordez. HMEI indizea ez da ofiziala 2012ko apirilaren 28a ezkerre; baina Espainiako Gobernuak ez duenez horren ordez erabiliko den indizea argitaratu, HMEI oraindik indarrean dago hura erreferentziatzen duten hipoteka-maileguetan.

Bilduko eta Ezker Anitzako ordezkariak alde bozkatu zuten; eta Elizateetakoak eta EAJkoa abstenitu egin ziren; azken hori, Kutxabanken kontra egiten diren kritikengatik.

ARETXABALETA

Hortz Mugaren 'Libertia'-rekin hasiko da kale antzerkien garaia

M.B. | ARETXABALETA

Uztailean kale antzerkia da Aretxabaletako Arkupeko uztaileko kultura egitarauaren protagonista. Etzi, eguaztena, izango da lehena. Hortz Muga taldeak *Libertia* izeneko antzezlan eskainiko du, 19:00etan, herriko plazan. 5-6 urtetik aurrerakoentako da ikuskizun hori.

Abentura fantastikoa da, txotxongiloak, panpina handiak, aktoreen lana eta umorea nahasten dituena. Libertateaz berba egiten du, baina txikiaren ikuspuntutik. *Libertia* metafora bat da: umeak autonomoago eta independenteago izaten hasten diren momentuari eta momen-

tu hori bizi duten moduari buruzko metafora bat.

Bestearekiko errespetua

Hiru txotxongiloren istorioa kontatzen da horretan. Libre izateko, fisikoki, emozionalki eta psikologikoki prest egon behar dute, eta, bereziki, bestearekiko errespetuaz hitz egiten du. Balioa ematen zaio laguntasunari, beldurrei aurre egiteari eta hautatzeko gaitasunari.

Hortz Mugaren antzezanaren ondoren, beste bi lan izango dira: uztailearen 10ean, Deabru Beltzak taldearen *Les tanbours de feu*; eta 17an, Trapu Zaharra taldearen *Gezurtiak*.



Hortz Mugaren *Libertia* antzezanaren pasartea. | GOIENA

Hiru atzek Mozambiken abian jarriko duen proiektuaren berri emango du etzi

M.B. | ARETXABALETA

Etzi, eguaztena, Hiru atzek proiektu berriaren aurkezpena egingo dute Aretxabaletako udaletxe zaharraren aurrean, 18:00etan. Oraingoan, Mozambique iparraldean, Niassa-Cabo-Delgado korridorean egingo du lan; hain justu, bertako nekazaritzari bultzada emateko Mundukidek martxan duen

programa orokorraren parte da herriko elkarteak aurrera atera gura duena.

Balio erantsi handia duten eta zuzenean komertzializa daitezkeen barazkien ekoizpenean lagunduko du, eta hango biztanleen bizi baldintzak hobetu. Hain zuzen, Balama distrituko 290 nekazarirengan izango du horrek eragina.



Eibar-Elgeta zerbitzua egiten duen taxi-busa, zapatuan, Artekalen. | LZ

ELGETA

Gaurtik aurrera Elgeta eta Bergara arteko lotura hobea taxi-bus zerbitzu berriarekin

Kontuz, ohiko ordutegietan izango diren aldaketekin; erabiltzaileek Elgetako udaletxean zein 943 00 01 17 telefono zenbakian eska ditzakete argibideak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Jaien biharamunean estreinatuko dute Bergara eta Elgeta arteko taxi-bus garraio zerbitzu berria; aste barruko egunetan bost zerbitzu berri izango dira eta aste bukaeretan, eskaripeko hiru zerbitzu berri.

Ordainketa Mugi edo Lurraldebus txartelekin egin beharko da, derrigorrez, eta geltokiak bost izango dira: Pagatzako biribilgunea, Mendizaleen plaza, Ubera auzoa, San Juan auzoa, Oxirondo plaza eta Ibargaraiko autobus geltokia. Bidaiaren prezioa 0,88 euro izango da. Hileko hogeigarren bidaiatik aurrera 0,70 euro eta 50 bidaiatik gora eginez gero 0,17 euro.

Eskaripeko zerbitzuak eskatzeko, 943 00 01 17 telefono zenbakira deitu beharko da bezperako 18:00ak baino lehen.

Elgeta-Eibar zerbitzua

Gipuzkoako Foru Aldundiak taxi-bus zerbitzuaren aldeko apustua egin du, oraingoan ere, Elgetarako. Emaizta onak eman ditu iazko apirilaren 16tik martxan dagoen Elgeta-Eibar taxi-bus zerbitzuak, eta bide beretik jotzea erabaki du Diputazioak. Martxan ipini osteko lehenengo hilabeteen 298 txartel saldu ziren taxi-bus zerbitzu horretan. Erantzun hori ikusita, denborarekin finko bihurtu ditu Diputazioak eskaripekoak ziren zerbitzu guztiak.

Erabiltzaile kopurua, gainera, handitzen joan da. 2012ko azken hiruhilekoan 902 txartel saldu ziren, eta 2013ko lehenengo bost hilabeteetan 2.592 txartel. "Garrantzitsua da herritarrek ipintzen diren zerbitzu berriak erabiltzea", esan du Oxel Erostarbe alkatea. "Elgetarrek Eibarrekin lotura

egiten duen taxi-busa erabiltzeak erraztu egin du zerbitzu berria martxan jartzea".

Elgetako Udalak orain urtebete pasatxo egin zuen gaur estreinatuko den zerbitzua martxan jartzeko eskaera. "Uztailaren 15era arteko epea zabaldu dugu herritarren ekarpenak jasotzeko", adierazi du Erostarbek. "Ordutegiak, paradak, maiztasuna... edozein eskaera edo aldaketa proposatu nahi izanez gero udaletxera jo daiteke", esan du. Udalak, gero, Diputazioan aurkeztuko ditu erabiltzaileek egindako eskaerak edo ekarpenak.

Ordutegien inguruko argibideak ere udaletxean eska daitezkeela esan du Oxel Erostarbe alkatea. "Autobus geltokian ere ipiniko dugu taula, baina Diputazioak ordutegi hori ofizial egiteko zain gaude, oraindik".

ANTZUOLA

Harrerarako talde bat eratu dute elkarbizitza prozesuko bileretatik

Informazioa jaso eta emango du taldeak eta aurrera begirako pausoz arduratuko da

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Duela aste batzuk amaitu zen herrian lehen aldiz egin den elkarbizitza prozesua. Euren eskatu zuten horrelako ekintza bat iazko aurrekontuak adosteko garaian, eta antzularren erantzuna ona izan da; izan ere, jatorri, adin eta genero askotariko 42 lagunek hartu dute parte pro-

zesu parte-hartzailean. Bileretan euren azaldu zutenaz, elkar gehiago, edo kasu batzuetan lehen aldiz, ezagutzeko eta elkarbizitza prozesuaren oinarriak lantzeko aukera eman die egitasmo horrek.

Azken bileran, aurrera begirako proposamenak landu zituzten, eta hortik sortu dute herritarren harreraz arduratuko den

taldea. Informazioa jaso eta ematea izango du helburu eta aurrera begira eman beharreko pausoz ere arduratuko da.

Udalaren ahalegina

Elkarbizitza bileretan parte hartu zutenek aurrerantzean ere arlo hori lantzen jarraitzeko gogoia agertu zuten.

Udaleko ordezkarien ustez, ilusioa eta gogoia dira aurrera egiteko ezaugarriak eta bileretatik ateratako proposamenak martxan jartzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartu dute. Egun dituen baliabideak kontuan hartuta, proposamenak kudeatzen saiatuko dela iragarri du.

ARAMAIO

Udalak bat egin zuen sexu askatasunaren aldeko nazioarteko egunarekin

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ekainaren 28an gay, lesbiana, transexual eta transgeneroen (LGTBQ) aldeko eguna ospatu zen mundu osoan. Aramaioko Udalak bat egin zuen aldarrikapena eta festa batzen dituen egunarekin eta kolektiboaren ikur den bandera jarri zuen udaletxeko balkoian: "Gizartea ez da askea izango baldin eta berdintasunaren balioetan oinarritzen ez bada". Aldarrikapenaren jatorria ezagutzeko atzera egin behar dugu, 1969. urtera. Urte hartako ekainaren 28an New Yorken sexu askatasunaren alde matxinatu zen herritar talde bat eta poliziaren jazarpen, irain eta indarkeriari aurre egiteko altxatu ziren, euren izaeraz, itxuraz eta harremanez inolako lotsarik ez zutela ozenki aldarrikatzeko.

rritzen ez bada". Aldarrikapenaren jatorria ezagutzeko atzera egin behar dugu, 1969. urtera. Urte hartako ekainaren 28an New Yorken sexu askatasunaren alde matxinatu zen herritar talde bat eta poliziaren jazarpen, irain eta indarkeriari aurre egiteko altxatu ziren, euren izaeraz, itxuraz eta harremanez inolako lotsarik ez zutela ozenki aldarrikatzeko.



LGTBQ kolektiboaren ikur den bandera Aramaioko udaletxean. | ARAMAIOKO UDALA

Bihar hasiko dute Gazte Uda ekimena, Gamarrako igerilekuetara egingo duten irteerarekin

12 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako Gazte Uda izeneko ekimena bihar jarriko dute martxan. Hiru ekintza antolatuko dituzte eta hiruak Arrasateko gazteekin batera egingo dira: Gamarrako igerilekuetara irteera bihar, *paintball*-a Deban hila-ren 4an eta surf ikastaroa Zarautzen hila-ren 11n. Azken ekintza horretarako izena eman daiteke oraindik; eguna, hilak 4, izango da azken eguna. Interesatuak udaletxean eman dezakete izena. Egun osoko irteeraren prezioa 15 euro da.

LEINTZ GATZAGA

Atez ateko bilketa sistema abiarazteko, guztia gertu

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Azken asteotan azpiegiturak eraiki dituzte udalerrian atez ateko hondakin bilketa sistema abiarazi ahal izateko. Konposta egiteko gunea, adibidez, eskola ondoan eraiki dute egurrezko eraikinean egokitu dute eta ekarpen-gune nagusia, berriz, Dorletarako bidean eraiki dute. Azken horren kasuan, egokitzapentxo bat egin behar diote, baina, osterantzean, dena

gertu dago Gatzagan ere hondakin atez ateko sistema abiarazteko.

Zaborraren gaineko zerga

Zabor kontuekin jarraituz, gaur, uztailak 1, hasiko da zaborraren bilketa dagokion zerga ordaintzeko epea, abuztuaren 31ra arte. Ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik, gainontzekoek zerga bilketa bulegoan ordaindu beharko dute.



Eskola ondoan eraiki dute konposta egiteko gunea. | UBANE MADERA

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!



Hauek dira irabazleak!

Hauek dira EKAINEN SARIDUNAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:
ZORIONAK, GUZTIOI!

NINTENDO WII KONTSOLA**

- Txaro Zubillaga Agirre (Arrasate)

BASERRISAREAKO OTARRAK**

- Aitor Aranzabal Gallastegi (Bergara).
- Mikel Lasa Palacios (Bergara)
- Iraitz Arenaza Arenaza (Aretxabaleta)
- Unai Etxebeste Larrañaga (Oñati)

BERTIKAL JOKOA**

- Amaia Lazkano Juaristi (Aretxabaleta)
- Agustin Iturbe Arenaza (Aretxabaleta)
- Itxaro Artola Lizarralde (Arrasate)
- Gema Muñoz Bermejo (Oñati)
- Agustin Bolinaga Zubia (Oñati)

ARGIAKO JOKOA**

- Angel Bergaretxe Abarrategi (Arrasate)
- Unai Gisasola Unamuno (Bergara)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO BI SARRERAK*

- Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
- Justina Iñarra Mazmela (Arrasate)
- J. M Ugarte Aiastui (Oñati)

LIBURU SORTA**

- M. Angeles Padilla (Bergara)
- Angel Arizabaleta Padilla (Bergara)
- Mila Kerejeta Urtaza (Oñati)
- Felix Irizar (Elgeta)
- Maria Etxebarria Altuna (Aramaio)

SARIAK JASOTZEKO

* **Arrikruzeko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute.

ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

** **Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitzte mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.
Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
goienakluba.com

KIROLA

KROSA

Azken metroetan aurreratu zen Gartzia irabazteko

- Oñatiarrak bigarrenez irabazi du Torreazon
- Nere Arregi izan zen emakume azkarrena

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Lasterketa hasieratik sartu zen aurreneko multzoan. Gura izan zuen erritmoa markatuz, lasterketa apurtu zuen, eta helmugara heldu baino 20 metro lehenago eskutik ikusi genuen Cipri Burciorekin. Helmugan geundenok elkarrekin helduko zirela pentsatu genuen. Baina, azken urratsak luzeagoak egin eta segundo bateko aldearekin irabazi zuen. Sergio Gartzia izan zen protagonista nagusia Torreazonoko krosan.

Lasterketa burua

Eguzkia kikuka zela hasi zen krosa 11:00etan. Irteera lekuan 91 korrikalari, 7,6 km-ko ibilbidea egiteko gertu. Etxe Aundi jatetxe paretik irten, eta Olaterainoko joan-etorria egiteko. Korrikalarien hitzetan "kros motza, baina gogorra. Gorabehera asko dituen".

Epailen pistola-tiroa entzun bezain pronto, hiruko taldetxo bat ipini zen lasterketa buruan: Xabier Luis eta Sergio Gartzia oñatiarrak eta Luis Estevez madrildarra. Zuazola zubira heldu orduko, metro batzuetako abantaila zuten. Metroek aurrera egin ahala Endika Donnay arrasatearra batu zitzairen.

Emakumeen proban ere lehia estua izan zuten hasieratik Nere Arregi arrasatearra eta Estela Biain oñatiarrak. Elkarrekin egin zituzten lehen kilometroak, baina Albarritza baserriko aldapan, Biainek ezin izan zuen Arregiren erritmoa jarraitu.

Azkarrenen atzetik, korrikalari popularrak. Esatariak irteera puntuan esan zuen moduan "Torreazonoko krosari bizitasuna eta giro ona" ematen dioten korrikalariak.

Kros erdia Olaten

Lasterketa burua Olaterara heldu eta itzulerako bidea hartuta, Cipri Burcio heldu zen lehenengo taldera. Gartziarekin batera, lasterketan agindu zuen une hartatik helmugaraino. Metro batzuk atzerago, Gaizka Romero arrasatearra. Gartzia eta Burcio aurretik ikusten zituen, baina ez zen euren ganaino heldu.

Olaten, Nere Arregi emakume azkarrena zen. Biain metro batzuk atzerago zegoen. Hirugarren emakume onena Eva Calle zen kros erdian.

Eskutik helduta

Gartzia eta Burcio lagunak dira eta ondo ezagutzen dute elkar. Baina, adinean alde handia dago bien artean. Hori horrela, Gartziazen erritmo aldaketaren baten Burcio atzean geratuko zela uste



Gipuzkoa Gipuzkoa Gipuzkoa Gipuzkoa



Sergio Gartzia oñatiarra helmugara heltzen, azken metroetan Cipri Burcio atzean utzi ondoren

genuen guztiok. Upainga base-ri inguruan metro batzuk aurreratu zen Gartzia. Baina, atzera begiratu, eta Burcioren zain gertzea erabaki zuen. Eskutik hainbat metro egin ostean, lehena sartu zen helmugan, zaleen txalo artean.

Gizonezko azkarrena ezagututa, emakume onenaren zein zen jakitea besterik ez zen geratzen. Ez zen aldaketarik egon. Olateko erdiko puntutik pasa ziren ordena berean heldu ziren helmugara: Arregi, Biain eta Calle.

Sailkapen orokorrak erabakita, zaleek txalo artean hartu zituzten gainerako korrikalariak. Askok seme-alabekin besoetan sartu ziren, beste batzuk zaleak txalotzen, eta guztiak, irribarretsu, baina nekatuta. Korrika egiteko sargori egin zuen atzo.

SERGIO GARTZIA | GIZONEZKO AZKARRENA

"Burciok azken metroan erritmoa jaitsi du, nik irabazi ahal izateko"

Bigarren urtez jarraian irabazita, gustura zegoen Sergio Gartzia.

Burciorekin eskutik ikusi zaitugunean, elkarrekin helduko zinetela pentsatu dugu.

Lagunak gara, eta hori erakutsi gura nuen eskutik heldu garenean. Bakarrik korrika egin ordez, elkarrekin egitea erabaki dugu. Azken metroan aurrera egin dut. Burciok une horretan erritmoa jaitsi egin du, ni lehenengo lekuan sartzeko.



MIREIA BIKUÑA

Hasieratik lasterketa buruan.

Hiru korrikalari ipini dira aurretik segidan, baina berehala harripatu ditut. Albarritzako aldapan aurrera egin dut, eta itzulerako bidea Burciorekin batera.

Oñatiarra izanik, Torreazonoko krosa

oso ondo ezagutzen duzu. Entrenatzeko leku ona da. Askok ibiltzen naiz paraje horretan. Kros polita da, eta aldi berean, zaila. Aldapa asko ditu, eta batzuk oso gogorrak dira.

NERE ARREGI | EMAKUMEZKO AZKARRENA

"Kontrarioen maila ikusita, ezusteko garaipena lortu dut eta pozik nago"

Pozarren zegoen Nere Arregi arrasatearra. Ez zuen irabaztea espero.

Zure ospakizunak erakusten du ez zenuela irabaztea espero.

Hala da. Irteera puntuan jakin dut zeintzuk ziren kontrarioak, eta maila handikoak zirela ikusita, lan txukuna egiteko asmoz irten naiz. Baina, zorionez, Biainek eta Calle baino sentsazio hobetoak izan ditut. Askok sufriritua, baina ezusteko garaipena lortu dut.



MIREIA BIKUÑA

Biain eta biok elkarrekin egin dituzue kilometro asko. Non apurtu duzu lasterketa?

Orain dela bi urte Albarritzan aldatu zuen erritmoa Biainek. Esango nuke leku berean egin dudala aurrera nik. Joaneko ibilbideak

goraka egiten du etengabe. Zati horretan indarrak gorde, eta itzulerakoan ahal nuen guztiak egiteko gogoz irten naiz. Baina, gaur ni izan naiz indartsuena, eta oso pozik nago.



GARI, ESTELA ETA NORA OÑATIARRA

"Oso pozik nago. Ez nuen halako emaitzarik espero. Bi seme-alaba ditut, txikiak 10 hilabetekoa eta entrenatzeko hala moduz ibiltzen naiz. Dena den, gogoarekin, asko egin daiteke. Albarritzan galdu dut Nereren erritmoa".



Joren. | JOSETXO ARANTZABAL

KROSEKO SAILKAPENAK

GIZONEZKOAK

- | | |
|-------------------|-------|
| 1. Sergio Gartzia | 25.11 |
| 2. Cipri Burcio | 25.12 |
| 3. Gaizka Romero | 25.44 |
| 4. Endika Donnay | 26.16 |
| 5. Kepa Varela | 26.24 |
| 6. Iñaki Arriaran | 26.39 |

EMAKUMEZKOAK

- | | |
|----------------------|-------|
| 1. Nere Arregi | 30.49 |
| 2. Estela Biain | 31.19 |
| 3. Ana Calle | 31.51 |
| 4. Monika Biain | 32.57 |
| 5. Amaia Bernal | 33.50 |
| 6. Agurtzane Arriola | 35.35 |

DATUA

91

KORRILARI

Horiek dira Torreauzoko 16. krosean parte hartu duten korrikalariak. Iaz, 134 korrikalarik parte hartu zuten, inoizko kopuru handiena izan zen.



Estela Biain, Nere Arregi eta Eva Calle, sufritzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Endika Donnay eta Gaizka Romero, taldetxo batetik tiraka. | JAGOBA DOMINGO



Korrikalariak Olaten, ura hartzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Kroseko motorrak eta korrikalariak, lehen metroak egiten, Upaingua baserrira heldu aurretik. | JOSETXO ARANTZABAL



Burcio, Biain, Gartzia, Arregi, Calle eta Romero, podiumean. | MIREIA BIKUÑA



ENDIKA DONNAY
ARRASATEARRA

"Lasterketa buruan ibili naiz hasieran, baina kros gogorra da. Igoera asko ditu, eta poliki-poliki atzean geratu naiz. Katarroarekin etorri naiz, eta emaitza ona dela uste dut. Sargori egin du korrika egiteko".



JON MURGUZUR
OÑATIARRA

"Azkarrenek erritmo indartsua ipini dute, eta ikusi ere ez ditut egin. Korrika egiteko giro ona egon da, eta ni neuk, oso pozik bukatu dut. Olateraino aldapa gora eta bero, eta itzulerakoan aldapa behera, baina haizea".



AMAIA BERNAL
OÑATIARRA

"Kros polita da. Herrikoia eta oñatiarrondako oso ezaguna. Badakigu aldapa gogorak zein lekutan dauden. Ni neu distantzia luzeagoetara ohituta nago. Berotzen hasi orduko lasterketa bukatu egin zait".



GAIZKA ROMERO
ARRASATEARRA

"Entrenamendu gisa hartu dut lasterketa eta ondo bukatu dut. Gustura nago. 20 egunean korrika egin barik egon naiz, eta gaur nabaritu egin dut. Sergio Gartzia egin duen lasterketa oso azkarra eta ona izan da".



JON ETA ANDER
OÑATIARRAK

"Parte hartzeko beharrezko adinaren mugan gaude. 14 urte ditugu. Lehen aldia izan da guretako, baina oso pozik gaude. Zapatuan, ibilbidea ezagutzen egon ginen eta gaur lasai egin dugu korrika".

ARETO FUTBOLA

Real Suciedad taldea nagusi, Labegaraietako kopa finalean

- ▶ Txapelketako hiru sari nagusiak irabazi ditu: fase erregularra, liga eta kopa txapelketak
- ▶ Ligan moduan, Betigorri taldea menderatu zuen: 3-2 irabazi zuten zapatuan

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Bayern München antzera, Real Suciedad taldeak denboraldi boro-bila egin du. Labegaraietako areto futbol txapelketaren historian lekutxo bat dauka zapatutik. Fase erregularra eta liga txapelketak irabazi ostean, kopako finala irabazi zuen Betigorri taldean mende hartuta (3-2). Hala, Bergarako txapelketak banatzen dituen hiru sari potoloenak lortu ditu.

Denboraldiko hirugarren garaikurra lortzeko asko sufritu zuen Real Suciedad taldeak. Izan ere, bigarren minuturako aurreratu zen Betigorri. Baina, hurrengo jokaldian huts egin zuen Betigorriren atezainak, eta berdintzea lortu zuen. Banakoarekin heldu ziren atsedendira.

Bigarren zatia parekatua izan zen. Biek ala biek izan zituzten aukerak. 35. minutu inguruan, falta erdiraketa bat baliatu zuen Real Suciedadek bigarren gola egiteko: atezainaren aldaratzea atea barrura sartu zuten.

Betigorrikerroak aurreratu zituen berdinketaren bila, eta atzean utzitako zuloak aprobetxatuz, hirugarrena egin zuen: kontraerasoa bikain antolatu zuen.

Partidua erabakita zegoela, epaileak penaltia adierazi zuen Betigorriren alde. Ez zuen hutsik egin. Penalti jaurtiketarekin bukatu zen Labegaraietako kopa finala.

Alitys hirugarren lekuan

Final handiaren aurretik, hirugarren eta laugarren lekuak zehazteko partidua jokatu zuten La 12 eta Alytis taldeek. Azken horiek irabazi zuten 3-5. Baina, lehen gola, La 12 taldeak egin zuen. Ondoren, Alytis 1-3 aurreratu zuen, eta partidua ia erabakita zegoela zirudienean, hiruna berdindu zuen La 12k. Kontraeraso baten laugarrena egin zuen Alytisek, eta La 12 atezain barik zegoela aprobetxatuz, bosgarrena.



Betigorri eta Real Suciedad taldeetako jokalaria kopako finala hasi aurretik. | IMANOL SORIANO



Alytis taldeak hirugarren lekua lortu zuen. | IMANOL SORIANO



La 12 taldeko atezaina geldiketa egiten. | IMANOL SORIANO

Antolakuntzarako errelebo bila

Zapatuan bukatu zuten Labegaraietako areto futbol txapelketaren 26. aldia. Antolakuntza taldeak lagun asko pasa da urte horietan. Bada, azken zortzietan Pedri Zafra dihardu antolatzaile lanetan. Pertsona gutxi batzuen laguntzaz antolatzen du urrian hasten den txapelketa: fase erregularra, liga eta kopa jokatzeko dituzte. Taldeak antolatu, partiduen zerrenda egin, epaileen lana banatu... Zapatuan antolatzaile lanak utziko dituela esan zigun: "Zumarragan bizi naiz, eta ume txiki bat daukat. Halako txapelketak jarraipen berezia behar du, eta aste bukaeratan Labegaraietan egotea komeni da. Egun, ezin dut jarraipen zehatzik egin. Hori horrela, erreleboa behar dut. Txapelketarako antolatzaile berriak behar dira".

Deialdi zabala egin gura du herritarren artean. Norbait laguntzeko gertu badago, Zafrarekin hartu-emanetan ipini beharko da. "26 urte bete ditu txapelketak. Bide luze bezain polita egin du, eta pena litzake, antolatzaile faltagatik, txapelketa galtzea. Badakit jendea ez dagoela halako saltsatan sartzeko gogoarekin, denbora gutxi daukagulako; baina txapelketarekin jarraitzeko antolatzaile berriak behar dira", esan digu.

PEDRI ZAFRA | ANTOLATZAILEA ETA JOKALARIA

"Txapelketa osasuntsu dago oraindik"

Pozik zegoen Pedri Zafra kopako finala irabazita. Real Suciedad taldeko jokalaria da, eta baita, txapelketako antolatzaile ere.

26. denboraldia bukatu duzue. Zer moduz joan da?

Ondo. Kirol arloan maila polita egon da. Beste denboraldi batzuetan hiru edo lau taldeen artean egon da lehia. Gainerako taldeak maila bat beherago zeuden. Aurretik, sei talde indartsu egon gara.



MIREIA BIKUÑA

Txapelketa osasuntsu dago oraindik.

Epaile federatua egon da finalean.

Azken fasetako epaileak federatuak izaten dira. Bestelakoan, taldeak dira epaile lanak egiten dituztenak.

Arlo horretan, baina, arazo bat baino gehiago izan dugu: epaitzeko fundamentu gutxi, arauak ez ezagutzea... Baina txapelketa osorako ezin ditugu epaile federatuak ekarri, oso garestiak direlako.

DATUA

12

TALDE

Horiek dira Labegaraietako liga eta kopa txapelketan parte hartu dutenak.

SASKIBALOIA

40 bat neska-mutiko Ointxek antolaturiko saskibaloia campusean

Astebetetz egon dira saskibaloia gertutik ezagutzen Josu Larreategiren gidaritzapean

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Ointxe Arrasate saskibaloia taldekoek, harrobia txikitatik lantzeko campusa antolatu dute aurten bigarrenegoz. Pasa den martitzenean, hilak 25, hasi zuten campusa eta domekara arte 8 eta 13 urte arteko gazteei saskibaloia zer den erakusten ibili ziren. Guztira ibarreko 40 bat neska-mutil animatu ziren, Arrasateko gain, Eskoriatza, Aretxabaleta eta Bergararik ere hurbilduz.

Josu Larreategiren zuzendaritzapean, beste hainbat entrenatzaile eta monitorea izan zituzten neska-mutikoek, besteak beste; Mikel Arejolaleiba, Ointxe jokalaria edo Beñat Barberena, Zilarrezko LEB mailako jokalaria. Beraz, gaztetxoek esku onetik ikasi zituzten teknika eta trikimailuak.

Saskibaloia protagonista

Egun osoan zehar saskibaloia munduan murgildu ziren neska-mutilak, 10:00etan hasi eta 18:00ak artean. Goizean batez ere, saskibaloia ezagutzeko jokoak egin zituzten, adinen arabera banaturiko taldeetan, hainbat ariketaren bitartez.

Arratsaldean oster, psikomotrizitatea lantzeko aerobic saioak egin zituzten eta ondoren, saskibaloiarekin loturiko ingeles



Saskibaloia campuseko neska-mutilak. | JAGOBA DOMINGO



Gazte bat Josu Larreategiren begiradapean. | JAGOBA DOMINGO

-saio motzak egin zituzten. Beraz, pasa den astean bailarako gaztetxoak kirola egin bitartean ikasten pasatu zuten egun osoa. Eta badirudi saskibaloia baduela etorkizuna gurean.

Zapatuan Garaia joan ziren Zapatuan Oñatin lehiaketa jokatze asmoa zuten, hala ere, azken orduan plana aldatu eta Garaiko pantanora joan ziren eguraldiaz eta uraz gozatzera.



Zapatuan Garaia uraz disfrutatzen. | OINTXEI SASKIBALOI TALDEA

Zarautzen campusa egin dute Aurtengoan baina, beste campusa bat antolatu dute Ointxeok. Zarautzen *Saskibaloia Udalekuak* egingo dituzte uztailearen 14a eta 21a bitartean. Bertan saskibaloiaz

gain, hondartzaz gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Zurutzaren arabera, Arrasateko campusera apuntatu diren neska-mutiko dezentek, Zarautzen errepikatuko dute.

FUTBOLA

Mondrari omenaldia egin zion Gipuzkoako Federazioak

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Gipuzkoako Futbol Federazioak urteroko batzar nagusia Arrasateko Amaia Antzokian egin zuen egubakoitzean. Bertara, Gipuzkoa osoko futbol taldeen ordezkariak hurbildu ziren, baina batzarreko puntuak aztertzen hasi aurretik,

Mondraren mendeurrena ospatu zuten.

Juan Luis Larreak, federazio-kide presidentea, errekonozimendu-plaka bat eman zien Jose Luis Ezkurra presidente ohiari, eta presidente berria izango den Ander Garai gazteari. Omenaldi xume baina merezitakoa jaso zuten Mondrak.

Alkateak eman zion hasiera

Batzar nagusia Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkateak hasi zuen, Gipuzkoako federazio-kideei eskerrak ematen, eta batez ere, Mondrako zale eta kirolarietako sakrifizioa esker-tzen. Horrez gain, hala jarraitzearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen, eta bi astean behin, urdaiazpikoa zozkatzen jarraitzea espero duela esan zuen.

Eskerrak Federazioari

Mondratik eskerrak eman nahi izan dizkiete Federazio-kideei, eta batez ere Juan Luis Larrea presidenteari. Ander Garairen esanetan, mendeurrenaren hainbat ekintza antolatzen laguntzen ari direlako, ehun urte ez direlako urtero ospatzen.



Ezkurra eta Garai, Larrearen eskutik plaka jasotzen. | JAGOBA DOMINGO



Gizonezkoen proba hastear. | IMANOL SORIANO

IGERIKETA

Bergarako igerilariak gogotsu egin zuten salto uretara

- ▶ Guztira 80 igerilari inguru batu ziren Bergarako kiroldegian
- ▶ Ibarreko taldeek pozik amaitu zuten egindako lanarekin

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Zapatu goizean Gipuzkoako igerilariak Agorrosinen elkartu ziren Gipuzkoako Udako sarietan parte hartzeko. Denboraldia amaitzeko proba gutxi falta dira eta Bergarakoa, zita polita izan zen igeriketaren zaleentzat.

Zarautz, Ordizia, Legazpi edo Tolosako igeriketa taldeetako neska mutiko dezentek parte hartu zuten. Hala ere, ibarreko igerilariarentzat data berezia izan zen, batez ere Bergarako Igeriketa Elkartekoentzat.

Ibarreko taldeak pozik

Nerea Anduaga, Bergarako entrenatzailearen esanetan, motibazio handiarekin egin zuten uretara salto Bergarako 18 ordezkariak eta emaitza nahiko politikak lortu zituzten.

Etxean igeri egiteak barruko grina piztu zien neska-mutiko mahoneroei eta emaitza onak



Igerilari bat uretan. | IMANOL SORIANO

lortzeko asmoarekin irten ziren, egunaz disfrutatu bitartean.

Aloña Mendiko igerilariak ere nahiko fin ibili ziren, hala ere, *Artza* entrenatzailearen esa-

netan, emaitza hobeak lortzea espero zuten. Oporretan, tentsio gutxiagorekin lehiatzen dira gazteak, eta horrek zerikusia izan zuela esan zuen *Artza*-k. Hala

ere, banaka batzuek emaitza oso onak lortu zituzten.

Antolatzaileak pozik

Jose Carlos Ibaibarriaga, Bergarako Igeriketa Elkarteko lehenakariaren esanetan, egun polita baina gogorra izan zen. Horrelako egun bat antolatzeak lan asko dakar, gainera, Bergarakoen elkarte gurasoek daramate aurrera, beraz ez dituzte nahikoa medio.

Goiz osoan zehar, arazo bakar bat egon zen neurketak egiteko sistemaren akatsa bat tarteko. Hori dela eta, jokatu ziren 35 proben emaitzak behin-behinekoak dira. Gipuzkoako Igeriketa Federazioak, astean zehar emango ditu emaitza ofizialak; hala taldeek bi-hiru egun izango dituzte akatsik egonez gero errekurtsio aurkezteko.

Arazo txikia alde batera utzita, egun borobila izan zen gure igerilariarentzat.

TXIRRINDULARITZA

Amateur mailako lasterketa Antzuolan, hilaren 14an

Antzuolako jaien aitzakian, Lehendakari Txapelketarako puntuagarria den lasterketa egingo dute Antzuolan hilaren 14an. Hain justu ere, Iñaki Lete memorialeko lasterketak 130 kilometro izango ditu. Aurreko aldietan bezala, Des-karga eta Asentzio igo behar dituzte. Lehenengo mendateak egingo du lehen aukeraketa, eta bigarrenak zehaztuko du zeintzuk diren tropeleko txirrindulari indartsuenak. Proba 09:30ean hasiko dute.

SQUASH

Debagoieneko squash txapelketa jokatu dute Musakolan

AKE Squash taldeak antolatuta, Debagoieneko squash txapelketa jokatu dute zapatuan, hilaren 6an. Bertan parte hartzeko izena emateko azken eguna gaur, astelehena, da. Interesatuak 656 73 60 17 telefonora deitu edo iuribetxeba@akesquash.com helbidera mezua bidal dezakete. Inskripzioak 10 euro balio du. Partiduak Musakolan jokatu dituzte zapatuan, egun osoan zehar. Bailarako jokalaririk indartsuenak egongo dira.

AUTOMOBILISMOA

Euskal Herriko gidari onenak Arlabango igoeran elkartuko dira

Zapatuan, hilaren 6an jokatu dute Arlabango auto igoera. Lasterketak 3,5 kilometro ditu, eta Gatzaga zaharreko errepidea beharrez, Arlaban igoko dute autoek. Azken ordura arte parte-hartzaile zerrenda ezagutuko ez den arren, Euskal Herriko gidari onenak Arlabaneko egoitea espero dute antolatzaileek. Besteak beste, iaz Arlabaneko eta aurten Udanan protagonista izan ziren David Ardions eta Aitor Arakistain espero dituzte. Irabazteko hautagailetako bi izango dira.

ARETO FUTBOLA

Zaldibarko areto futbol txapelketarako izen-ematea zabalik

Uztailaren 13an hasita jokatu dute Zaldibarko 24 orduko areto futbol txapelketa. Bada, hilaren 10a, eguaztena, da izena emateko azken eguna. Talde bakoitzak 60 euro ordaindu behar ditu txapelketan jokatu ahal izateko. Bi bide daude inskripzioa egiteko: zaldibarko24orduak@gmail.com helbidera idaztea edo 637 38 74 41 zenbakia. Azken horretan *Whatsapp*-a erabiliz eman ahal izango da izena. Oporren aurreko Zaldibarko azken txapelketa izango da.

NEREA ANDUAGA
ENTRENATZAILEA



"Emaitzak nahiko onak izan dira, pixkanaka hobetuz joan dira egunean zehar. Gaur etxean igerian daudela igartzen da, motibazioarekin irten dira".

ESTHER UDABE
IGERILARIA



"Errelebotan hirugarren geratu naiz eta oraindik 100 metro libre egin behar dut. Ea medailarik lortzen dudana, baina pozik nago nire marka hobetu dut eta".

MIREN TATIEGI, ANE JAUREGI ETA AINHOA SASIETA
IGERILARIAK



"Gaurko eguna nahiko itxuroso doa oraingoz. Eguna amaitu aurretik erreleboko lasterketa egitea falta zaigu baina, oraingoz balorazioa nahiko positiboa da. Erreleboetan ahalik eta emaitza onena lortzen saiatuko gara eta egunaz disfrutatuko dugu. Etxean igeri egitea polita da beti".

ARETO FUTBOLA

Narciso Pavo | Eskoriatzako areto futbol taldeko entrenatzailea

"Krisiak mesede handia egin digu: egun, asko baloratzen da harrobiko entrenatzaileon lana"

- ▶ Eskoriatzarrak areto futboleko entrenatzaile onenaren saria jaso zuen Bartzelonan
- ▶ Benjaminetatik seniorretara, maila guztietan ditu taldeak Eskoriatza kirol elkarteak

MIREIA BIKUÑA | ESKORIATZA

Narciso Pavo (Eskoriatza, 1965) nagusien mailako Eskoriatzako areto futbol taldeko entrenatzailea eta areto futbol eskolako koordinatzailea da. Azken 30 urteetan kirol horren alde egingo lana aitortzeko sari berezia jaso du aste bukaeran Bartzelonan.

Zorionak! Entrenatzaile onenaren saria jaso duzu. Hitz potoloak dira.

Bai, eta oso harro nago. Espainiako areto futboleko (ANEFS) entrenatzaile onena izendatu naute. Aste bukaeran Bartzelonan egindako topaketan jaso dut urrezko intsignia, eta oso pozik nago.

Zure lankideek ze baloratzen dute intsignia horrekin?

Nire kasuan, areto futbolaren alde egindako lana eta dedikazioa, jokalarien artean zabalduak balioak eta koordinatzaile moduan egindako lana. Beste modu batera esanda, areto futbolaren alde egindako guztia aitortu didate: 30 urte Eskoriatzako taldeekin eta bederatzi urte Espainiako areto futboleko entrenatzaileen elkarteko ordezkari lanetan.

Eta hori guztiori, Espainia mailako entrenatzaile onenaren aurrean.

Bai, hala da. Harrobiko taldeekin lan egiten dugun entrenatzaileak eta profesionalak elkartzen gara. Maila askotariko entrenatzaileak, alegia.

Formazioa jasotzeko topaketa urtero egiten dugu autonomia-erkidego ezberdin batean. 2008an Eskoriatzan egin genuen. Topaketa horietan, mintegiak eta hitzaldiak egiteaz bat, urtero, entrenatzaile batek egindako lana goraiatzeko da.

Saria jasotzeaz gain, zer gehiago ikasten duzue halako topaketetan?

Ederrena parte-hartzaileen artean sortzen den bizikidetzatza da. Oso aberasgarria da. Herri txiki bateko taldeko entrenatzailea naiz, baina Bartzelona, Inter Movistar eta Pozo Murcia taldeetako entrenatzaileen esperientziak ezagutzeko aukera izan dut; edo San Cugatoko errendimendu handiko zentroko kirol-psikologo Pep Mariren hitzaldia entzuteko aukera. Ikasteko eta hazteko balio dute halako topaketek.

Bitxia da areto futbolaz bizi diren profesionalen ikasten eta formazioa jasotzen jarraitzeko duten beharra ikustea.

Bai, bitxia da, baina euren ilusioa ikusi besterik ez dago. Jesus Candelas bi aldiz izendatu dute

munduko entrenatzaile onena, eta, dagoen lekuan dagoela, ez du hutsik egiten. Irandik joan zen Bartzelonara.

Halako topaketetan ikasitako Eskoriatzara eroatea erraza al da?

Eskoriatzak, herri txikia den neurrian, muga asko ditu. Balia-bide ekonomiko handiak dituzten entrenatzaileekin partekatzen ditugun ideiak baliabide txikiagoak ditugun klubetan jartzea ez da erraza.

Baina asko ikasten dugu, eta horren emaitzak Eskoriatza kirol elkarteko areto futbol taldeetan ikus daitezke.

Esan daiteke, orduan, areto futbola osasuntsu dagoela Eskoriatzan?

Bai. Elkarte bakarra gara, Euskadin, maila guztietan taldeak dituguna: benjaminetatik... Euskal Ligara.

Aipagarria da, bestalde, areto futbol eskolak izan duen erantzuna: benjamin eta alebin mailatan 50 bat ume izan ditugu bukatu berri den denboraldian.

Arizmendikoekin hitzartutako proiektuak erantzun ikusgarria izan du. Eskoriatzan eta inguruko beste herri batzuetan beste kirol eskaintza batzuk egon arren, mutiko askok aukeratu dute areto futbola.

Gure ustez, lana ondo egiten dugun seinale da.

Eskoriatzan futbol taldea ez egoteak mesede egiten dizue?

Akaso, bai. Ume batzuek futbol eskola eta areto futbol eskola partekatzen dute, eta, federatze-ko unea heltzen zaienean, bat aukeratzeko dute. Baina beste batzuk zuzenean datoz areto futbol eskolara. Eta gu oso pozik gaude erantzunarekin.

Areto futbol eskolan diharduten umeek ez dute txapelketetan parte hartzen.

Astean behin entrenatzen gara eta hilean behin jokatzen ditugu partiduak. Eskola kirolean ere lantzen dute areto futbola, baina infantil mailara arte ezin ditugu federatu.

Askok diote areto futbola futbolaren anaia txikia dela.

Anaia txikia izan daiteke hantekin, futbol zelai txikiago baten eta jokalaririk gutxiagorekin jokatzen delako, baina oso bestelako kirolak dira.

Areto futbola kirol bizia da, azkarra, teknika handia eskatzen duena... Areto futbola ezagutzen ez duenari, Eskoriatzara etortzeko gonbita egiten diot. Kirol hau



Narciso Pavo, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegian eguaztenean. | MIREIA BIKUÑA

"Entrenatzaileen topaketen onena bizikidetzatza izaten da"

"50 bat ume ibili dira Arizmendirekin hitzartutako eskolan"

"Harrobiko taldeak dira edozein klubetako oinarria eta etorkizuna"

"Areto futbolarerik gozatu nahi duten zaleekin bete gura dugu kiroldegia"

ezagutzen duena maiteminduta geratzen da. Futbolak ez dituen ezaugarri asko ditu.

Hedabideen beharra dauka areto futbolak?

Zalantza barik, bai. Hedabideek egiten dugun lanaren berri eman behar duzue. Guk zuen beharra daukagu, batez ere, zaleengana heltzeko. Hedabideetan agertzen ez bagara, ezer egiten ez dugula dirudi.

Mutikoei Leo Messiri buruz berba egiten dute, ia egunero telebistan eta prentsan ikusten dutelako.

Orain oportetan zaudete. Hasi zarette datorren denboraldia antolatzen?

Aurten lan ona egin dugu. Bost jokalarik taldea utzi eta iraupen luzeko hainbat baja izan arren, denboraldi txukuna egin dugu. Talde horri eutsiko diogu irailean. Oinarri horrekin sailkapenaren goiko lekuetan egon nahi genuke. Beste pauso bat eman gurako genuke. Jokalariak baditugu, eta lanerako gogoia ere bai.

Bestalde, harrobiko taldeekin lanean jarraituko dugu. Infantil mailako bi talde sortuko ditugu irailean.

Behin eta berriz aipatzen duzu harrobia. Ezinbestekoa da?

Bai. Nik beti borrokatu izan dut harrobiaren alde. Edozein klubetako talde nagusiak harrobiaren beharra dauka, eta Eskoriatza kirol elkartekoak ere bai.

Manuel Muñoz zenarekin batera asko borrokatu nuen bigarren eta gazte mailatan talde bana osatzeko.

Bestalde, krisiak mesede handia egin digu: harrobiko entrenatzaileak eta jokalariak asko baloratzen dira egun. Hemen, Debagoienean, Euskadin eta Espainian.

Orain dela gutxira arte, Brasildik ekartzen zituzten entrenatzaileak. Euren ziren onenak. Jakintsuenak. Egun, harrobiarekin lan egiten dugunak gaude bogan.

30 urtez diharduzu areto futbolarerik lanean. Nekatuta zaudete?

Ez, oso aberasgarria delako. Dena dela, lantalde ederra daukat alboan. Edozein lan egiteko prest dauden kideak ditut. Lanak ondo banatzen ditugu, eta, horrela, gauzak errazago egiten dira.

Zein da epe motzera duzuen erroreak nagusia?

Harrobia zaintzea, baina, batez ere, zaleengana heltzea. Izan ere, areto futbolarerik gozatu gura duten zaleekin bete gura dugu kiroldegia.

Seme-alabenganako jarrerak eragina du haien garapenean

Hainbat heziketa estilo katalogatu ditu Valentziako unibertsitateak

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Valentziako unibertsitateak gurasoen heziketa estiloei buruzko ikerketa egin du 6-14 urte arteko 1.000 neska-mutilekin. Agresibitate maila, autoestimua, egonkortasun emozionala, lorpen akademikoak eta konpetentzia soziala neurtuta, gurasoen hezitze moduak seme-alabengan eraginik baduen eta baldin balu nolakoa litzatekeen aztertu dute.

Gurasoen jarrera kontuan hartuta, lau heziketa estilo handi katalogatu dituzte: adierazpenkoa edo asertiboa, autoritarioa, arduragabea eta bihozbera. Eta elkarren artean bereizten dituzten hiru ezaugarri identifikatu dituzte:

komunikazioa, maitasun adierazpena eta kontrol maila.

Ondorioztatu dutenez, gurasoen jarrerak eragina du umeen garapenean eta autoestimuan, eta estilo bakoitzak bere eragina du, gainera. Baina gurasoen heziketa estiloa ez da umeen garapena eta autoestimua baldintzatzen duen elementu bakarra; izan ere, adituek diote ingurune sozialak ere baduela zeresanik. Horregatik da hain zaila zein heziketa estilo den egokiena zehaztea.

Estilo bihozbera

Valentziako unibertsitateko ikerlarien esanetan, posible da zenbait guraso beraiek finkatutako esti-

loekin guztiz ez identifikatzea. Hala ere, katalogazio orokor bat egin eta heziketa eredu bakoitzari ezaugarri batzuk eman dizkionte, gero horiek umeengan izan ditzaketen ondorioak zehazteko.

Definitutako guztien artean, estilo bihozbera nabarmendu dute ikerlariak egokiena moduan. Maitasun adierazpen maila handia, gurasoen inplikazioa eta kontrol maila txikia dira modelo horren ezaugarriak. Hori erabiltzen duten gurasoek komunikazio ona eta harreman maitekorra dute seme-alabekin, denbora eta arreta eskaintzen dizkiete eta berdintasuna eta tolerantzia bultzatzen dituzte euren artean.



Gurasoak seme-alabekin arrantzan. | NEW BRUNSWICK TOURISM

Seme-abalek nerabearoa baino lehen hartu behar dituzte ardurak, baita etxeko zereginak betetzea ere

Etxea denon ardura dela eta zainketa eta mantenua behar dituela ulertarazi behar zaie, baita etxeko lanak egitea ez dela "amari laguntzea" ere

I.E. | ARRASATE

Belaunaldi asko hazi dira etxeko zereginak "amaren lanak" zirela eta etxean zerbait eginez gero "amari laguntzen" ari zirela sinetsita. *Familiped* aldizkariko pediatrek baieztatzen dute etxeko zereginak denon lana direla eta garrantzitsua dela seme-alabei txikitatik erakustea ez dela "amari laguntzea", denon mesedetan lan egitea baizik.

Adituek diotenez, komenigarria da nerabearora heldu aurretik seme-alabek ohitura eta errutina batzuk finkatzea, eta ardurak eman behar zaizkie, tartean etxeko lanak egitea.

Etxeko zereginak, ikasgai

Etxeko zereginetan parte hartuz asko ikasten dute nerabeek, eta, hasieran zailtasunak eragiten baditu ere, denborarekin lanak bereganatu eta automatizatu egiten dituzte.

Lan horretan gurasoek ere badute egitekorik. Jarrera normala izan daiteke gauzak motel edo gaizki egiten dituztelako seme-alabei zereginak egiten ez uztea eta gurasoek bere gain hartzea lan horiek. Baina ez da egokiena, egiten utzi behar zaie eta ez atzetik ibili euren egindakoa desegin edo txukuntzen, horrek euren motibazioa kaltetzen du-eta.

Bestalde, eskolan emaitza txarrak ateratzeak ez du esan nahi denera heltzeko gaitasunik ez dutenik, beraz, ez zaizkie horregatik etxeko ardurak kendu behar.



Harrikoa egiten. | XUMET

Seme-alabak gai dira ikasi eta etxean lan egiteko.

Zor litezkeen arazoak konpontzeko zein ardurak banatzeko negoziatzea eta ez inposatzea

aholkatzen dute adituek. Bestalde, familiako kide bakoitzak bere zereginak betetzeak giro hobea eragiten du etxean, eta gaztetxoek konfiantza handitzen du.

Neurrian egindako kirolak eragin positiboa du umeen eskola-errendimenduan

Kirolak pertsonen autoestimua hobetu eta helburu berriak finkarazten dituela dio Aukeak

I.E. | ARRASATE

Arrasateko Aukea kirol erakundeak honakoa argitaratu du Debagoieneko Ospitalearen *Berriak* aldizkarian: "Ikerketa askok erakutsi dute eskola errendimendua eta jarduera fisikoa bateragarriak izateaz gain oso onuragarriak direla. Neurrian egindako jarduera fisikoak eragin oso positiboa du eskola-errendimenduan eta gazteen satisfazio mailan". Beraz, neurrizko kirolak notak hobetzen laguntzen du.

Autoestimua hobetzea

Hainbat ikerketatik batutako ondorioak azaldu ditu Aukeak. Dioenez, jarduera fisikoak pertsonen autoestimua hobetzen

du eta horrek helburu berriak finkatzea eta horiek lortzeko ahaleginak egitea eragiten du. Horiek betetzeak erakusten du norberarenganako konfiantza indartu eta asmoak lortzeko lan egin behar dela.

Kirola egin ostean erlaxazioa lortzen da eta horrek ikasteko gaitasuna handitzen du. Gainera, jarduera fisikoari esker ikasten da helburuak bete egiten direla, bidean oztopoak eta zailtasunak izan arren.

Amaitzeko, onarpen soziala eragin, familiaren artean harremanak hobetu eta droga, bandalismo eta halako beste jarduerak batzuetarako arriskuak murrizten dituela jasotzen du Aukearen testuak.



Neska gaztea eskalada egiten. | ADRENAIHA





Agorrosin ostalaritza

Boni Laskurain 21 / BERGARA
Tel.: 943 77 70 30

Eskaintza

- Eguneko menua astelehenetik ostiralera 9 €.
- Asteburuko menua 15 €.
- Bazkariak eta afariak, ostiraletan, larunbatetan eta igandeetan. (Jaiegunetan ere bai).
- Gosariak, ogitartekoak, pintxoak.
- Bazkari eta afariak terrazan emateko aukera.

Plater konbinatuak: ostiral gauean
Ordaindu 1, eraman 2



Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egunenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.



Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea
Goiru kalea 1
ARRASATE
943 71 02 28
647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza

- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak.
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela.
- Aparkalekua eta terraza.



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / www.restaurantelasa.es

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauean 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria
Mas Gastronomía 2009.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

KULTURA

Koruen ahotsek lagunduta ekin dio berriz San Pedro parrokiak

- ▶ Asteburuan inauguratu dute zaharberitu ostean
- ▶ Mozarten 'Requiem'-ak 1.000 lagun batu zituen



Abesbatza, bakarlariak eta orkestra sinfonikoa Aitor Biain oñatiarra buru dutela. | IMANOL SOR

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Musika korala izan da protagonista nagusietako bat Bergarako San Pedro parrokia inauguratzeko asteburuan egin dituzten ekitaldietan. Ekitaldi dotoreak, gainera, sentimenduz beteak, zaharberitze lanetarako bi urtez itxita egon eta gero, San Pedrok ez zuen gutxiago merezi-eta.

Barikuan hasi ziren ospakizunak 20:00etan, San Pedro eta San Paulo egunari dagozkion bezperak abesten. Trinitateko komentuko mojek abestu zituzten salmoak eta eliztar dezente jarraitu zituzten errezoak.

Batzuk otoitz egiten zuten bitartean, herriko Aritzeta abesbatzak emanaldia egin zuen parrokiaren kanpoko aldean, Ariznoa

plazan. San Pedro kaleko dendari eta tabernariak antolatutako emanaldia izan zen hori, euren are hondartxo jarri nahi izan dute-eta, San Pedro parrokiako inauguraziorako. Euskal kantagintzako doinu ezagunak abestu zituzten Aritzetakoe eta baita Habanera entzutetsuak ere.

Egun handia, zapatua

Egun handia baina, zapatua izan zen. San Pedro eguna izanda, parrokiako zaindariarena, meza nagusia egon zen goizean, eta berezia izan zen bi arrazoirengatik: batetik, bi urteren ostean, herritarrek meza bertan entzuteko aukera izan zutelako berriz; bestetik, Koro Parrokialaren estreinaldia zelako.

Jon Molina parrokoak gidatu zuen meza eta ondoan izan zuen, besteak beste, Bergaran abade izanagatik aski ezaguna den Juan Kruz Mendizabal, gaur egun Donostiako Gotzaindegiko Bikario Nagusia.

Ordu eta erdiz luzatu zen meza-aren amaieran, esker hitzak izan zituen Molinak parrokiaren zaharberitzeaz arduratu den ekipo teknikoarendako, eta bereziki, inaugurazio aurreko egunetan buru belarri lanean aritu diren herritarrendako.

Molinari berari ere eman zizkioten eskerrak. Aldarera igota eman zizkion Rosario Garitanok kristau komunitatearen izenean, azken bi urteetan egindako lan guztiagatik.

Parrokiako korua, dotore

Ederra izan zen, era berean, Koro Parrokial berriak egindako lehen emanaldia. 60 bat gizon-emakumek osatu dute parrokiako korua, Rosa Narbaizaren zuzendaritzapean, eta euren ahotsek erabat bete zuten San Pedro zapatuko estreinaldian.

Aurrelan handia egin zuten parrokiaren inaugurazio mezan ondo abesteko eta gustura geratu ziren emaitzarekin, are gehiago abestutako piezak errazak ez direla kontuan izanda; Perosiren *Lehen Meza Pontifikala* eta Hilarion Eslavaren *Tues Petrus*-a abestu zituzten, esaterako.

Eta eurak pozik eta eliztarrak ere pozik. Hunkituta atera ziren herritar asko.

Borobiltzeko, 'Requiem'-a

Inaugurazio ekitaldien ginda Bergarako Orfeoak eta Oñatiko Abesbatzak osatutako koroak -120 bat ahots-, Oñatiko Ganbara Orkestrarekin batera zapatu iluntzean interpretatutako Mozarten *Requiem*-ak jarri zuen. Gozatu ederra hartu zuten San Pedron batu zirenia 1.000 pertsonen. Zortzi hilabetez gogor lan egin ondoren, bi koruen arteko elkar ulertzea erabatekoa izan da eta pasarte bakoitzari beharrezko intentsitate eta gozotasuna eman zioten, Aitor Biain oñatiarraren zuzendaritzapean. Lan bikaina, era berean, bakarlariena: Oñatiko Gorka Aranburu (tenorea) eta Oihana Diaz (sopranoa) eta Bergarako Nere Ibarra (sopranoa) eta Karlos Etxaniz (baxua).



JON MOLINA
BERGARAKO
PARROKOA

"Oso pozik nago. Urduri ere izan naiz eta hunkituta, baina dagoeneko, pozik... Taldean egindako lana izan da hau, eta eskerrak eman nahi dizkiet parte hartu duten guztiei. San Pedro martxan da berriz".



JUAN KRUZ MENDIZABAL
DONOSTIAKO BIKARIO
NAGUSIA

"Poz handiz ikusi dut parrokiak zituen zulo handi haiek konpondu egin direla, nahiz eta oraindik barrua txukuntzeko dagoen. Koro Parrokial berrituak mezan egindako lana ere azpimarratzekoa izan da".



ROSA NARBAIZA
KORO PARROKIALEKO
ZUZENDARIA

"Oso pozik bukatu dugu, gozatuaz kantatu dugu, eta uste dut hori igarri egin dela. Guretako zaila izan da, lan handia, baina gainditu dugu. Interesa eta gogoia oso handiak izan dira koroan".



ROSA MARI LARRAÑAGA
KORO PARROKIALEKO
KIDEA

"Oso pozik gaude egindako kontzertuarekin. Oso garrantzitsua izan da guretako gaurko saioa. Eta azpimarratu nahiko nuke Rosa Narbaizak, zuzendariak egindako lana; oso pozik gaude harekin".



MARIA NARBAIZA
HERRITARRA

"Oso dotore geratu da San Pedro parrokia berritu eta gero. Lan ikusgarria egin dute eta gaurko meza nagusia are ikusgarriagoa izan da; eta parrokiako korua zer esanik ez!".



VALEN MOÑUX
HERRITARRA

"Badakit barruko lan batzuk falta direla, baina San Pedro oso polita geratu da. Gaurko meza ere oso polita eta hunkigarria izan da; Koro Parrokialak ere lan ona egin du, pozik egoteko modukoa".



Molinarekin batera, Mendizabal Bikario Nagusia eta, Esnaola, Ostolaza, Lekuona, Garitano, Eguren eta Arrieta abadeak izan ziren aldrean. | IMANOL SORIANO



Aritzeta abesbatzak Ariznoa plazan, batzoki ondoan, egin zuen emanaldia. | I.S.



Koro Parrokiala meza nagusian Rosa Narbaizak gidatuta. | IMANOL SORIANO

SIMS
SERVIMASA
 Sukaldeko altzariak eta osagarriak




BERGARA
 Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
 Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
 E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
 103 industria poligonoa
 Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com




**Renove
 Plana 2013**
 Aprobetxa ezazu.

EVE Ente Vasco de la Energía
 ELUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**375 €-rainoko
 dirulaguntzak!**



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!





Txalaparta bizkarrean dutela Ttakun Taldekoak poteoan. | JAGOBA DOMINGO

Txalpartaren soinua izan zen zapatuko protagonista Arrasateko kaleetan

Arrasateko Lehenengo Txalaparta Egunean, alde zaharra ondo baino hobeto animatu zuten

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Arrasateko Ttakun Txalaparta Taldeak Lehenengo Txalaparta Eguna ospatu zuen zapatuan.

Egun osoan zehar hainbat ekintza antolatu zituzten Arrasateko kaleak alaitzeko asmoarekin, eta helburua ondo baino hobeto lortu zuten. Herritar askoren arreta piztea lortu zuten eta eguna oso pozik amaitu zuten Ttakun Taldekoek.

Goizean goizetik 10:00etan ekin zioten festari Goikobaluko gaztelu zaharretik diana jo eta Arrasate esnatuz. Handik Herriko plazara jaitsi ziren eta 11:00etan txalaparta saio libreei hasiera eman zieten. Udaletxe parean lau bat txalaparta jarri zituzten eta herritarrek makilak hartu eta gogoz eman zieten txalapartei. Ttakun Taldekoak ere, hor ibili ziren azalpenak eman eta laguntzeko prest.

Goizean goizetik

Eguerdian oster, irrintzilarien txanda heldu zen. Herriko Plazan ere, irrintzilariak eta txalpartariak bat egin zuten saio motz baina bizi bat eskaintzeko. Zortzi irrintzilari animatu ziren, eta Isabel Kirze antolatzaileak zera esan zuen: "Esperientzia oso polita izan da, txalpartaren soinuak irrintziak botatzera animatzen du-eta".

Bazkaria eta poteo berezia
Eguerdian Udalpe elkartean 40 pertsonendako bazkaria prestatu zuten, arratsaldean zetorrenari aurre egiteko indarrak berritzeko. 18:00ak inguruan, Arrasaten egin den lehenengo txalaparta-poteoari hasiera eman zioten.

Bertan, txalaparta bizkarrean hartu eta alde zaharreko bederatzi tabernatan saio inprobisatuak egin zituzten. Saio hauek ez ziren falta izan. Lehenengo izan arren, emaitza ikusita, ez da azkena izango.



Irrintzi saioa Herriko Plazan. | JAGOBA DOMINGO



Txalaparta saio libreria umeak ere animatu ziren. | JAGOBA DOMINGO

Leo Harlem-en gertutasunak barre algarak eragin zituen Amaia Antzokian

Ukaezina izan zen zapatuko saioko arrakasta. Euskaldunon 'potroak' goraiatu zituen Harlem-ek

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Aulki guztiak bete ziren zapatuan Leo Harlem eta Sergio Olalla komikoei eskaini zuten emanaldiaz gozatzeko. Arrakasta ukaezina izan zen eta aurretik leku guztiak saltzeak errespetua dakarren arren, sekulakoa izan zen Harlem eta Olallaren erantzuna.

Ordu eta erdi luzez aritu ziren ikusleei barre algarak eragiten hamaika kontu ezberdin aztertzen; besteak beste, haurtzarora, gaueko kontuak zein euskal nortasuna edo jarrera. Azken horri Leo Harlem-ek maisuki egin zion karikatuta: urtetan zehar Aretxabaleta bisitatu ondoren, ederki ezagutzen gaituelako.

Sergio Olalla 'ezezaguna'

Askorentzat arratsaldeko lehenengo protagonista ezezaguna zen, hala ere, Sergio Olallak urte dezente daramatza oholtza gainean, 2002an hasi baitzen.

Olallak bere burua aurkezteari ekin zion, galtzaile baten lekua hartuta. Haurtzaroko familiako oporrak, lehen jaunartzea edo nerabetako kontuen pasarteak

umore aldrebesarekin kontatu zituen. Barre algarak eragin zuten, esaterako, nerabegaroko sexualitatearen gaineko tabuek; kanpai jotzearen ondorioz itsu geratzeko arriskuarenak, adibidez.

Aurkezpena egin ondoren, bakarriketa *ofizialari* hasiera eman zion eta gaua izan zuen ardatz nagusi. Publikoa ondo baino hobeto berotu zuen eta txanda amaitu orduko merezitako txalo zaparrada jaso zuen.

Harlem-en magia

Lehen hitza esan orduko, publikoa poltsikoan sartu zuen Harlem-ek. Sekretua hein handi batean, ibarra eta Gipuzkoa oso ondo ezagutzen dituela da, eta horrek sekulako gertutasuna eman zion umoristaren saioari. Besteak beste gastronomia edo kirola izan zituen abiapuntu bezala, eta Espainiako beste lurralde batzuetako ohiturekin konparatu zituen. Maritxu Kajoi ere nonbait agertu zen saioan zehar eta egungo *metrosexualak* euren tokitxoan izan zuten. Emanaldi borobila izan zen zalantzarik gabe.



Harlem eta Olalla emanaldiaren azken minutuetan. | JAGOBA DOMINGO

GURE MUSIKA TALDEAK

THE POTES



The Potes pasa den eguazteneko kontzertuaren aurretik. | JAGOBA DOMINGO

"The Potes sortzearen errua 'Jul'-ena eta bere banjoarena da"

- ▶ Tabernan, lagun artean sorturiko punk-folk proiektua dugu The Potes
- ▶ 'Mozkorrek interpretaturiko mozkorrenzako musika egiten dugu'

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Tabernan jaiotako proiektua da The Potes. Belaunaldi ezberdineko musikariak helburu bakar batekin; noizean behin elkartu eta garagardo artean ondo pasatzea musika aitzakia bezala erabiliz. Eguaztenean, Seber Altubeko oholtzara igo ziren eta punk jarreraz bustiriko folk doinuekin amaiera ezin hobea eman zieten San Juan jaiei. Irlandarrek duten edateko grina jakina da, baina gure protagonistak ez dira atzean geratzen. Euren arabera mozkorrenzako musika jotzen dute, mozkorrek interpretatua gainera. Proiektu berezi zein altxor gisa ezkutuan gordetakoaren inguruan gehiago jakiteko baina, Asier Sala *Strummer* polifazetikoarekin izan gara.

Zeintzuk zaudete The Potes proiektuaren atzean?

Egia esan ez dugu oso argi! Oinarrian, *Jul*, Ibai, *Romeo*, Igor Sala eta ni gaude. Hala ere, kontzertu oro lagun kolaborazioak izan ditugu. Adibidez lehenengo kontzertuan Dirty Brothers-eko Agina eta Leire Añibarro izan ziren eta pasa den egubakoitzean Los Galerna taldeko Jokin egon zen batera atzean. Ikusten duzunez

"Folk irlandarra da influentzia nagusia baina ez bakarria"

ez dago ganora handirik, bakoitzak ahal duenean laguntzen du.

Entseguak antolatzea kaos bat izango da orduan.

Bai, egia esan bakoitzak ahal duenean laguntzen du. The Potes lagun talde bat bezala sortu genuen, ez da proiektu serio bat, beraz ez dugu inolako obligaziorik. Baina guzti hau proiektua sortu zenetik argi utzi genuen.

Beraz, nola hasi zen?

Dena *Jul*-en errua izan zen! Banjo ikasten hasi zenean, kontzertu akustiko bat egin behar genuela pentsatu genuen. Hasieran *Jul*, *Agina* eta ni elkartu ginen kantu batzuk egiteko asmoz, Dirty Brothers-ekin geldi-aldia egin genuela aprobetxatuz. Asmoa urtean bi kontzertu egitea zen,

Dirty Brothers-ekin kontzertu akustikoak egin ditugunean bezala. Horregatik hasieran hiruroen proiektua zen.

Hala ere familia handituz joan zen.

Bai, hala gertatu zen. Lehenengo kontzertua Gabonetan eman genuen Dat tabernan, eta kantuak aukeratu ahala, familia handituz joan zen. *Jul*-i akordeoia ondo geratuko zela otu zitzaion, beraz, Igor-ek akordeoia hartu zuen. Ondoren, baxu-jole eta bateriaren falta sumatu genuen, hasierako formatua handitzen zihoalako, eta Ibai sartu zen. Eta *Romeo*, tabernako solasaldi batean animatu zen. Esan bezala, tabernan sortutako talde bat gara, garagardo artean erosen sentitzen gara.

Zein musika mota jotzen duzue?

Folk irlandarra da influentzia nagusia, hala ere, ez da bakarria. Talde bat aipatzekotan The Pogues izan beharko litzake, hala ere, beste hainbat estiloren influentzia dugu nahi edo ez. Zenbait aipatzekotan, The Dubliners, Flogging Molly, Social Distortion-en azken diskoak, Mahones, RIP... beti saiatu gara gure inguruko taldeen kanturen bat gurera ekartzen. RIP-en *Condenado* kantuak adibidez oso ondo kasatzen du formatu honetan. Nire ustez punk-folk musika egiten dugu, tartean Johnny Cash-en bertsioa egin arren.

Nondik dator izena.

Nahiko argi ikusten dela uste dugu. Taldearen funtsean dauden bi elementu islatzen ditu: The Pogues eta garagardoa. Egia esan, lehenengo kontzertuko kartela egiteko asmatu genuen izena.

Hemendik aurrera zein da zuen asmoa?

Printzipioz, Eskoriatzan uztailearen 12an plazan jotzea, hortik

aurrera ikusiko dugu. Taldea sortu genuenean, helburua tabernetan jotzea zen, hala ere azkenengo bi kontzertuak plaza batean izango dira beraz... baliteke Eskoriatzakoa azken kontzertua izatea edo baliteke hilabete batzuk barru lokalean elkartu eta disko bat grabatze hastea. Etorkizuna guztiz erabakitzeke dago. Gainera Dirty Brothers-ekin disko labur bat grabatzeko asmoa dugu, eta horrek denbora asko hartuko digu. Esan bezala, The Potes, Dirty Brothers-en atsedendaldia batean sortu zen, beraz grabazioa prestatzen hasten garenean, horretan jarri beharko ditugu indar guztia. Baina nork daki...

JUL' BOLINAGA | BANJO-JOLEA

"Banjoa beti gustatu zait"

"Banjoa entzun nuen lehenengo aldia, jazz musika egiten zuten Big Band-etan izan zen, eta hasieratik instrumentuaren sonoritateak txunditu ninduen.

Urteak ibili naiz banjoa ikasi nahian, baina duela urte eta erdi hasi nintzen. Instrumentua jotzeko *bluegrass* estiloa dut gogokoan, azkarra eta baldar xamarra delako. The Potes-ekin baina folk irlandar estiloa jotzen dut. Egia esan ez dut inongo ikono edo influentzia zehatzik. Pixkanaka banjoaren munduan sartuz noa eta hainbat estilo ezberdin egiten daitezke".

Google ez da erantzule emaitzetan erakusten diren datu pribatuena

Batasuneko Abokatu Orokorrek informazio hori sortzen duen webgunea egiten du erantzule

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Google eta pribatutasunari buruzko lehen iritzia eman du jakitera abokatu orokorraren bitartez eta Google ez du behartuko erabiltzaileen informazioa ezabatzera. Erabiltzaileen datu pribatuen babesa aztertze eskatu zioten Auzitegiari, zehazki, erabiltzaileak hala eskatuz gero bilatzailearen emaitzetatik haren datuak ezabatzeko eskaera bete behar duten ala ez. Europako Auzitegiak, loteslea ez bada ere,

adierazi du ezetz, Google-ek ez duela zertan emaitzetatik datuok ezabatu, edukiaren sortzaileen erantzukizuna delako hori eta bilatzailearena. Datuen babeserako erakunde ezberdinak ez datoz, halere, oso bat emandako arrazoiarekin. Hala, Europako mugen barruan diharduten Interneteko enpresek Europako datuen babeserako araudia bete behar dute baina ez dute hirugarren enpresek sortzen dituzten datuen gaineko erantzukizunik. Ezabatze eskaeren aurrean, Batasunak



Google-en zerbitzari nagusietako baten irudia. | GOOGLE

adierazi du pribatutasun eta adierazpen askatasun eskubideak babesten jarraituko duela eta erabiltzaileek datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea izango

duela baldin eta haiek publiko egiteak eskatzailearen eskubideren bat urratzen badu ala datu horiek ezelako erreleantziarik ala interes publikorik ez badute.

Datuen zaharkitzea ere hartuko da aintzat kasu guztietan. Google-ek baina ez luke emaitzetan erakutsitakoaren gaineko erantzukizunik, kasu guztietan

Banda zabaleraren, iruzurra datutan

Batasunak eskaini eta ematen den zabaleraren arteko aldea agerian ipini du

J.B. | ARRASATE


Europar Batasuneko batzorde batek osatutako txosten baten arabera, puntako orduetan Espainiako Estatuko erabiltzaileek kontratatutako banda zabaleraren %66,7-a soilik jasotzen dute benetan. Agindu eta ordaindutakoa baino abiadura txikiagoa jasotzen dute kontsumitzaileek orokorrean baina ez da Espainiako kasua bakarrik, ezta gutxiago ere.

Hain justu, Espainiako tasa Europar Batasuneko batzorde baten bestekoaren gainetik dago eta Frantzia eta Erresuma Batuan, esate baterako, %40tik gorakoa da ordaindutakoaren eta benetan jasotzen denaren arteko aldea. Beste muturrean leudeke Hungaria eta Eslovakia herrialdeak, biak %90etik gorako tasekin.

Banda zabaleraren azterketa hau, betiere, aurrez instalatuta dauden telefono lineen gainean eraikitako sareak dira, ez kable bidezko sare independenteena. Kasu horretan, tasaren aldea askoz ere txikiagoa da baina etxeko kontsumitzaile arruntek, gaur egun, aurreko telefonia sare baten bitartez jasotzen dute oraindik Internet zerbitzua, konexio mota-

rik ohikoena da, hortaz. Egoera honen aurrean, Europar Batzordeak gardentasun gehiago eskatu du eskaintzen eta saltzen diren zerbitzuetan. Batzordeak dio gaur egun kontsumitzaileek ez dakitela kontratatzen duten megakopurua zenbatekoa den eta zerbitzu hori bere osotasunean jasotzen duten ala ez. Datu hauek

txosten baten jasotzen diren lehen aldia da eta Bruselarik agindu dute neurriak hartzen hasiko direla. Merkatua gertutik behatzea nahi dute batzordetik eta Batasun osoan merkatu bakarrentz jotzea, telekomunikazio guztiekin egin gura den moduan, eskaintza eta kontrola modu bateratuan bideratzeko.



Modem baten irudia. | BLOGSPOT



Home aplikazioa, zenbait telefonotan. | MASHABLE

Facebook Home eten dute arrakastarik izan ez duelako

J.B. | ARRASATE

Eten egin du Facebook-ek, hila-bete gutxira, Facebook Home, mugikorretarako aplikazioa. Sistema eragilea eraldatu eta Facebook oinarri hartuta mugikorreko sistema eragilearen itxurak hartzen zituen aplikazioa zen Facebook Home.

Interesik ez du piztu aplikazioak eta HTC First modeloak ere, ez du harrera onik izan. Android-en gainean instalatutako pertsonalizazio geruza bat da Facebook Home, sare sozialaren zerbitzu guztiak mugiko-

rreko funtzionamenduarekin batzen zituena. HTC etxearen First modeloarekin batera atera zuten merkatuta baina oso gutxi saldu da telefono hori. Estatu Batuetan hasi ziren saltzen eta eten egin dute fabrikazioa. Facebook Home-eren harrera txarra ez dute soilik zekarren telefonoaren salmenta urriek eragin, Google Play-tik ere deskarga gutxi izan ditu aplikazio berezi horrek eta erabiltzaileek nahiko kalifikazio txarra eman diote zerbitzuari erabili dutenek.

Gazteek deirik ia ez ei dute egiten elkarrekin geratzeko

J.B. | ARRASATE

Smartphone-aren erabilerrari buruzko galdeketa egin du LiveClubs aplikazioaren enpresak. Espainiako gazteen %5ek bakarrik erabiltzeko du lagunekin telefono deia. 5.000 erabiltzailearen artean egin dute inkesta eta %95ak aitortzen du ez dela etxetik mugikorra hartu barik irteten. Inkestari erantzun dioten %75ak dio

gainera, komunikatzeko mezularitza aplikazioak erabiltzen dituztela, nagusiki WhatsApp eta Line aplikazioak.

Lagunak eta ligatzea

Sare sozialen erabilera ere aztertuta da galdeketa eta gazteek elkarren artean geratzeko Tuenti, Twitter eta Facebook erabiltzen dute. Kopurua baina txikiagoa

da, mezularitza aplikazioekin konparatuz gero eta %15ak soilik erabiltzen ditu sare sozial konbentzionalak geratzeko. Erabilerrari dagokionez, telefonoa lagun berriak egiteko eta ligatzeko erabiltzen dute. Jende berria ezagutzeko %36k erabiltzen dute telefonoa eta %45ak ligatzeko erabiltzen du telefonoa eta bertan dauden aplikazioak.

Firefox 22 eskuragarri dago 3D jokoentzako euskarriarekin eta WebRTC kit-a dakarrela

J.B. | ARRASATE

Bi dira Mozillaren nabigatzaile libreaken berrikuntza nagusiak: 3D jokoetan ibili ahal izateko hobekuntzak eta WebRTC kit-a. Azken horrekin, denbora errealeko telekomunikaziorako euskarria hobetu da. Nabigatzailea eguneratuta ala software-a deskargatuta eskuratu

daiteke dagoeneko azken bertsioa Firefox-en webgunean bertan.

Errendimenduak hobera

Errendimenduan hobekuntza nabariak ditu eguneraketa berri honek. Hala ere, RAM memoriaren kontsumo tasa altuarekin jarraitzen du.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Berdin zait!!!

Mario, Mario, Mario, zer egin duzu? Originaltasuna zure arrakastaren sekretua zen eta Nancys Rubias taldearen azken bideoari originaltasuna ez den beste edozein gauza dario.

Akaso reality-an xahutu dute originaltasun guztia eta orain hondarrak besterik ez zaizkie geratzen. Baina Kubrikek egindako film batean oinarrituta dagoen bideoklip bat kopiatzea negargarria da. Amenabar ez da inoiz nire gustuko zuzendaria izan baina *Me encantata* bideoklipa *Ctrl+c* egindako lan eskas bat besterik ez da.

Finantziarioz bila egongo da zuzendaria eta noski fokuek beti erakartzen dute dirua, hala ere... Bere lana edo kopia hori oso txarra da.

Ez dut Sandro Rey astrologoarekin hitz egin, baina Alaska eta Marioren reality-aren bukaera laster etorriko den susmoa daukat. Reality baten funtsa originaltasuna da eta bi hauei fokuen beharra gero eta gehiago antzematen zaie.

Orain katxe guztia galduko dut, baina zerbait aitortu behar dut. Bideoklipa txarra da eta letrak ez du zentzurik baina abestia entzun bezain laster dantza egiteko gogoazartzen zait. Beraz... Berdin zait!!! Datsegit!!!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 1



'Harmailatik'

Torreuzoko krosa eta Labegarrietako areto futboleko kopako finalari buruz hitz egingo dugu. | 22:00

12:00 Magazinea
13:00 Jaiak: San Juanak
13:50 Pedalka
14:18 AsteON
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion agurrak
15:23 AZK2012
16:23 Pedalka
16:53 Zorion agurrak
16:58 Berriak
17:28 Eguraldia
17:31 Onein: Lainoen azpian
17:58 Ikusi irratia: Ion Fontenla
18:32 Atik Zra
19:45 Zorion agurrak
19:50 Berriak
20:15 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean Gaur
21:33 Berriak
21:58 Eguraldia
22:00 Harmailatik
22:45 Magazinea
23:45 Berriak
00:10 Eguraldia.

MARTITZENA, 2



'Huhezinema'

MUko ikus-entzunezko komunikazioko ikasleen lanak ikusi ahalizango ditugu saio honetan. | 21:33

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:15 Zorion agurrak
13:22 Harmailatik
14:04 Ikusi irratia: Ion Fontenla
14:37 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Harmailatik
15:58 Onein: Lainoen azpian
16:25 AsteON
16:55 Zorion agurrak
17:00 Berriak
17:25 Eguraldia
17:28 AZK2012
17:58 Zorion agurrak
18:03 Lamien artean
19:01 Harmailatik
19:46 Zorion agurrak
19:51 Berriak
20:16 Eguraldia
20:18 Magazinea
21:03 Gurean Gaur
21:33 Huhezinema
22:03 Berriak
22:28 Eguraldia
22:33 Magazinea
23:18 Klaketa
23:54 Berriak
00:19 Eguraldia.

EGUAZTENA, 3



'Magazinea'

Botiken berrordainketari buruz hitz egingo dugu osasun tartean, Amaia Igartua farmazialariarekin. | 20:17

12:00 Magazinea
12:45 Gurean Gaur
13:10 Harmailatik
13:55 Pedalka
14:23 Ikusmira: Ekinn Azaro
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Klaketa
15:49 Onein: Zainzuri pastela
16:19 Harmailatik
16:59 Zorion agurrak
17:04 Berriak
17:29 Eguraldia
17:32 Huhezinema
18:05 Ikusmira: Ekinn Azaro
18:27 Harmailatik
19:12 Ikusmira: Urgatz musika taldea
19:36 Zorion agurrak
19:44 Berriak
20:14 Eguraldia
20:17 Magazinea
21:02 Gurean Gaur
21:32 AsteON
22:02 Berriak
22:27 Eguraldia
22:29 Magazinea
23:14 Harmailatik
23:59 Berriak
00:24 Eguraldia
00:27 Magazinea.

EGUENA, 4



'Planik bai?'

Naiara Uriarte kazetariak astebururako kultura ekintzen berri emango digu *Planik bai?* saioan. | 17:56

12:00 Magazinea
12:50 Gurean Gaur
13:15 Huhezinema
13:40 Onein: Bakailo kurruskaria
14:11 Ikusi irratia: Ion Fontenla
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Zorion agurrak
15:43 Atik Zra
16:57 Zorion agurrak
17:02 Berriak
17:27 Eguraldia
17:30 Onein: Ijito besoa
17:56 Planik bai?
18:16 Huhezinema
18:46 Ikusmira: Urgatz musika taldea
19:10 Zorion agurrak
19:16 Planik bai?
19:41 Zorion agurrak
19:47 Berriak
20:12 Eguraldia
20:14 Magazinea
21:04 Gurean Gaur
21:34 Pedalka
22:04 Planik bai?
22:24 Berriak
22:49 Eguraldia
22:52 Magazinea
23:37 Klaketa
00:13 Berriak
00:38 Eguraldia.

EGUBAKOITZA, 5



'AsteOn'

Asteazken zehar bailaran gertatutako albiste garrantzitsuenen errepaso egingo du Jon Bereziabarrek. | 22:00

12:00 Planik bai?
12:20 Magazinea
13:05 Gurean Gaur
13:30 Onein: Zapo otarrainka
13:58 Pedalka
14:26 Planik bai?
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Planik bai?
15:43 AZK2012
16:13 Ikusmira: Urgatz musika taldea
16:38 Atik Zra
17:52 Zorion agurrak
17:58 Planik bai?
18:18 Berriak
18:43 Eguraldia
18:46 Planik bai?
19:06 Ikusi irratia: Ion Fontenla
19:41 Zorion agurrak
19:47 28 klip
20:17 Zorion agurrak
20:22 Berriak
20:52 Eguraldia
20:57 Planik bai?
21:22 Zorion agurrak
21:27 Gurean Gaur
22:00 AsteON
22:30 Jaiak: Debagoieneko jaiak
23:30 Berriak
23:55 Eguraldia
23:58 AsteON
00:28 Planik bai?
00:48 Berriak
01:13 Eguraldia.

ARRASATE IRRATIA

Txatxilipurdiko udalekuekin bat egingo dugu astean hirutan

Astelehenean, eguazten eta egubakoitzetan *Uda giroan* irratiaotik bat egingo dugu Txatxilipurdiko udalekuekin. 10:00etan kontatuko digute egunerako zein asmo dituzten eta azken orduko informazioa ere eskainiko digute Arrasate Irratiko 107.7ko uhinetan.

Igerilekuaren berri jasoko dugu egunero, 'Uda giroan' saioan

Astelehenean egubakoitzera bitartean Joxe Landa eguraldi adituak iragarpenean egin ostean, Musakolako kiroldegira gerturatuko gara 107.7ko uhinetan. Igerilekuko sorosle Aintzane Arizmendirekin egongo gara eta berak kontatuko dizkigu igerilekuari buruzko kontuak.

3D puzzlea zozketatuko dugu aste honetan Arrasate Irratian

Aste honetako saria 3D puzzlea izango da; sei urtetik gorako haurrei dago zuzenduta puzzlea. Sari hori eskuratu nahi baduzue, ez pentsatu bi aldiz eta hartu parte aste honetako zozketan. Horretarako, deitu 943 25 05 05 telefonora edo bestela idatzi irratia@goiena.com helbidera mezu bat. Zorte on!

TELE-ALBISTEAK

Eskoriatzako eta Elgetako jaiak, gaurko 'Magazinean'-n

Asteburua festa giroan igaro ondoren, jaiekin telebistaz disfrutatzeke aukera izango duzue

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORITAZA
Festa giroan murgilduko da *Magazinean* gaur, astelehena. Elgeta eta Eskoriatzako jaiek eman dutena ikusi ahal izango dugu.

Elgetako jaiak

Eguenean hasi ziren Ferixa Nagusiko jaiak Elgetan. Alkate txikiaren izendatzea eta mozorro festa jaso zuen orduan Imanol Gallego kazetari saltseroak. Egubakoitzean Espaloioako jubilatuen bazkaria eta umeen plazako bazkaria ere jaso genituen, baita buruhandi eta puzgarrietan gertatutakoak

ere. Zapatuan, asto karrerak eman zuena jasotzen ere izan ginen, nola ez. Eta baita jaso genituen jaioberriei egin zitzaizen ongietorria eta estreinakoz egin dituzten euskal dantzak ere. Atzo, domeka, egin zen Ferixa Nagusian ere izan ginen bertako giroa jasotzen.

Eskoriatzako jaiak

Eskoriatzako San Pedro jaiak, berriz, egubakoitzean hasi ziren parrokiako abesbatzak emandako txupinazoaz eta orduan izan zen kale giroa batu genuen. Soka-



Elgetako jaietako mozorro egunean, txanpainarekin topa egiten. | IMANOL GALLEGO

Jaien saio berezia ikusgai, egubakoitzean 22:30ean

tira txapelketa eta nagusien danborradan ere izan ginen egubakoitzean. Besteak beste, domekan *castellers* ikuskizuna egin zuten eta hori hartzen ere izan ginen. Haur danborrada eta koadrilen arteko jokoak ere jaso genituen.

Gaur, astelehena, euskal jaiak ospatuko da eta bertan jasotakoak ere erakutsiko dizkizuegu.

Saio berezia, egubakoitzean

Jaien saio berezia eskainiko dizuegu egubakoitzean 22:30ean.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Jone Arrieta Gorosabel
Uztailaren 7an, 9 urte.
Zorionak, maitxia! Zure urtebetze egunean eta opor luze hauetan, ondo-ondo pasatu.



ESKORIATZA
Oihane Belategi Arrese
Uztailaren 5ean, 8 urte.
Zorionak, poxpolintxo! Zortzi patxo Ametzen partetik eta aitaxo eta amatxoren partetik beste patxo potolo bat. Ondo-ondo pasatu eguna.



OÑATI
Sara Zubia
Uztailaren 5ean, 5 urte.
Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo pila danon eta, bereziki, zure anaitxo Unax eta Mikelen partetik, Baitta Teo, Urdin eta Amanelen partetik ere!



OÑATI
Mertxe Arriaran Etxeberria
Uztailaren 4an, 70 urte. Zorionak, amama! Zu bai amama! Eskerrik asko guregatik itten dozun dana eta zaren bezala izateagatik. Horrela jarraitu eta patxo handi bat etxekoan eta, bereziki, asko maitte zaituen bi txikitxo hauen partetik. Mua, amama!



ARRASATE
Elaia Iturbe
Uztailaren 2an, 6 urte.
Zorionak eta urte askotarako, printzesa! Merendola goxia preparatu, geuk erregaluak eruangottu-eta! Izugarri maitte zaugun danon partetik, mila kilo zorion!



ARRASATE
Oihan Loiti
Uztailaren 2an, 10 urte.
Zorionak, parrandero! Ondo-ondo ibili zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



ARETXABALETA
Maren Garai Santamaria
Uztailaren 1ean, 7 urte.
Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure urtebetze egunean eta tori txokomarrubizko mila patxo etxekoan partetik.



OÑATI
Ane Buquete Diaz de Gereñu
Uztailaren 1ean, 2 urte.
Zorionak, printzesa, zure bigarren urtebetetzean! Txokolatezko mila muxu familiaren eta, batez ere, aitaxo, amatxo eta lbairen partetik.



ARETXABALETA
Amaur Bergaretxe Larrinaga
Uztailaren 1ean, 17 urte.
Urte askotarako, Amaur! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat Zaraitzuren partetik. Bueno, amatxok eta aitaxok be, patxo bana.



BERGARA
Markel Larrañaga Fernandez
Ekainaren 30ean, 3 urte.
Zorionak, Markel! Amatxo, aitaxo eta familia guztiaren partetik, ondo-ondo pasatu.



OÑATI
Haizea Zubia Aranzabal
Ekainaren 29an, 3 urte.
Zorionak! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta besarkada goxoak Oñati eta Bergarako familiaren partetik. Maitte zaittugu!



BERGARA
Goiuri Arana Bolaños
Ekainaren 29an, 3 urte.
Zorionak, printzesa, etxekoan partetik zure hirugarren urtebetetzean. Musu handi bat familia guztiaren partetik! Ondo pasatu!



OÑATI
Maite Gomez Alday
Ekainaren 29an, 40 urte.
Zorionak, amatxo. Egun polita eduki maite duzun jendearekin. Maite zaitugu. Iraia eta Josean.



ARETXABALETA
Orkatz Angulo Martinez
Ekainaren 28an, 2 urte.
Zorionak, Orkatz! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta segi zaren bezalako izaten, txapeldun! Muxu handi bat etxeko denen partetik.



ARETXABALETA
Eduardo Altube
Ekainaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, tio! Ondo pasatu zure eguna eta muxu potolo bat. Gol-gol!



ARETXABALETA
Mirian Manteca Sebastian
Ekainaren 28an, 40 urte.
Zorionak eta muxu handi bat Eneko eta aitaxoren partetik. Ondo pasatu eguna, merezi duzu-eta.



BERGARA
Lucia Robla Rodriguez
Ekainaren 28an, 12 urte.
Zorionak, zure familiaren eta, bereziki, Hugo, Danel eta Jonen partetik. Ondo pasatu eguna. Afari goxia preparatu, geuk opariak eruangottu-eta! Mila muxu zuretzat.



OÑATI
Ane Erostarbe Menoyo
Ekainaren 28an, 13 urte.
Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat etxekoan partetik eta ondo pasatu eguna.



ARRASATE
Paulo Abasolo Etxabe
Ekainaren 28an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetzea eta aupa Ereala!



ARRASATE
Xabier Ozaeta Jimenez
Ekainaren 27an, 2 urte.
Zorionak, muxu bat! Etxekook, aitaita-amamak, Azkuako eta Arrasateko izeba-ozaba eta lehengusinak. Baita Issanek ere!



BERGARA
Gorka Alberdi Garitano
Ekainaren 27an, 6 urte.
Zorionak, mutikote! Ondo-ondo ospa dezazula opa dizugu. Lagunen eta etxekoan partetik. Muxu handi bat, txapeldun!




BERGARA
Ane Miren Zabala Ibarra
Ekainaren 27an, 32 urte.
Zorionak, Anetxo! Muxu potolo bat etxeko danon partetik! Eta zure pastel goxo horietako bat jateko prest gare!



ARETXABALETA
Nora Cantera Herrasti
Ekainaren 27an, 5 urte.
Zorionak, potxoli, eta patxo handi bat familiako guztien partetik.



BERGARA
Ion Alberdi Garaiondo
Ekainaren 25ean, 35 urte.
Zorionak, aitaxo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Eta muxu goxo asko Jokin eta Gorkaren partetik.



BERGARA
Unax Mujika Beistegi
Ekainaren 25an urtebete. Zorionak, txikitxo! Patxo handi bat Haizea, aitaxo eta amatxoren partetik.



BERGARA
Haizea Mujika Beistegi
Ekainaren 2an, 3 urte.
Zorionak, printzesa! Patxo handi bat Unax, aitaxo eta amatxoren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz Goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.com helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko
11:00ak arte
jasotako zorion agurrak
bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak
hurrengo astean
argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Unax Mtz. de Marigorta Merino

Bergara. 3,200 Kilo. Ekainaren 22a. Gurasoak: Nagore eta Iñaki. Argazkian, aitatzorekin.



Sara Mendia Beldarrain

Bergara. 3,740 Kilo. Ekainaren 21a. Gurasoak: Lierni eta Ibai. Argazkian, Sara aitaren besoetan.



Aimar Deza Barragan

Elorrio. 2,540 Kilo. Ekainaren 21a. Gurasoak: Sandra eta Gonzalo. Argazkian, Aimar jaioberria sehaskan.



Unai San Vicente Aizpiri

Bergara. 4,030 Kilo. Ekainaren 22a. Gurasoak: Maite eta Gorka. Argazkian, Unai amarekin.



Irati Ortiz de Urbina Ruiz

Bergara. 3,120 Kilo. Ekainaren 25a. Gurasoak: Ainara eta Aitor. Argazkian, Irati aitarekin.



Garazi Eizmendi Bardezi

Bergara. 2,880 Kilo. Ekainaren 24a. Gurasoak: Saioa eta Koldo. Argazkian, lehengusu-lehengusina Lier eta Malen Bardezi Kerejetarekin.

Jaio da!


Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batara.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK





	Ate zaindariak	Poliki, ezteki	Irungo auzoa
Mokadu		* Eskoriatza-ko elizatea	Euskal sindikatua
	Ez hotza, ez beroa		
	Arautegi		
Bizkaleraz, aran	Feriak		
Beldurri	Xume		
			Bokala
			Zezen zikiratua
Elizgizon			lodoa
Irauten duen aldi			Sobera, gehiegi
			Joan den urtean
Alda dai-tekeena			
Zintzo			
		Dardaraz	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK



Ezetz igarri: mutxikinekin egindakoa. zortzi; mutxikinekin egindako zazpiak eta horien mutxikinekin egindakoa.

SUDOKUA

			2	7			
	5				6	8	7
	7	6		8	9		3
1	6		8		5	3	4
3							2
7				3	4		
				6		2	5
			4				8
	4	2	3	5	8		9

HIZKI SALDA

Topa itzazu Ipar Amerikako bost mendi

T	E	R	G	E	U	C	Y	D
E	A	T	I	K	A	B	O	O
Y	E	A	P	R	I	E	R	T
O	K	T	E	X	G	R	H	E
T	M	C	K	I	N	L	E	Y
L	A	S	L	O	G	A	N	A
A	F	E	R	U	E	J	I	P
M	O	U	N	T	H	O	O	D
U	C	R	E	S	D	L	E	T

EZETZ IGARRI!

Eskale batek zigarro bat egiten du lurrean topatzen dituen zazpi zigarro-mutxikinekin.

49 mutxikin topatuz gero, zenbat zigarro egin ahal izango ditu?

AI, ENE!

Alde iluna bai, baina baita freskoa ere

Ohituta gaude *Star Wars*-en posterrak, kamisetak, mozorroak eta antzerakoak ikustera. Baina hau ez al da gehitxo? www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Frantziako Tourra dopatu gabe irabaztea ezinezkoa da"

LANCE ARMSTRONG | TXIRRINDULARI OHIA

Zapatuan eman zitzaion hasiera Korsikan munduko txirrindulari proba garrantzitsuenari, eta giroa berotzeko-edo, esaldi hau bota zuen amerikarrak. Utopikoa da, baina inor dopatuko ez balitz, norbait izango litzateke helmugaratzen lehena, ala? **Le Monde**

EGURALDIA



Max. 24°

Min. 14°

Goizean eta arratsaldean eguzkia jaun eta jabe izango da eta temperatura igoko da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-07-01

HAMARREKOA

Bakartxo Tejeria Gipuzkoan, Larraulen jaioa, Villabonan hazia eta Zuzenbidean lizentziaduna, 2001ean heldu zen Gasteizko Legebiltzarrera eta iazko urte bukaera ezker bertako presidentea da. | TXOMIN MADINA

"Politikari guztiak zaku berean sartzea ez da justua"

1. Hilabeteak daroazu karguan. Lana esperotako modukoa da?

Denbora honek balio izan dit jakiteko zertan datzan Eusko Legebiltzarreko presidentea izatea. Ez da gauza bera legebiltzarkidea edo presidentea izatea. Lana oso desberdina da.

2. Zenbatetan sentitu zara eskolako andereño?

Egia esan, batzuetan, bai. Legebiltzarkideak osoko bilkuran isiltzen ez direnean, adibidez. Baina, orokorrean, nahiko txukun portatzen gara.

3. Politikariak hain gaizki konpontzen al zarete benetan?

Maiz, itxura kontua da. Askotan, eztabaida sutsuak izaten dira, eta, prentsa tarteko dagoenez... Baina, normalean, ez dago giro zakar hori, eta akordioetara iristen gara. Azken finean, nahiz eta alderdi desberdinetakoak izan, errespetua mantentzea funtsezkoa da; elkarri errespetua beti zor baitiogu.

4. Protokoloa, laguna ala etsaia?

Laguna. Askotan laguntzen du eta beharrezkoa da. Ziurtasuna ematen du. Eta, askotan, erridikulua egitetik salbatzen zaitu.

5. Legebiltzarreko presidentek ba al du ordutegirik? Eta kontziliaziorako aukerarik?

Ez, goizean goiz hasten naiz eta inoiz ez dakit noiz amaituko dudana. Asteburuetan ere ekitaldi ugari izaten dira. Horrela, kontziliaziorena zaila da.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Krisialdia lurperatuko nuke"

"Momentu honetan, krisialdia lurperatuko nuke. Lana, ongizatea eta etxebizitza guztiontzat ziurtatuko nituzke, gizarte justu eta oparoa lortzeko. Bestalde, gure herriak behar duen behin betiko bakea eta elkarbizitza ere finkatuko nituzke".

6. Azken hiru presidentek emakumezkoak izan zarete. Kasualitatea, ala zerbaiten adierazlea?

Ez da kasualitatea. Emakumeek adierazi dugu gauzak gizonen bezain ondo egiten dakigula. Eta alderdiek emakumeengan konfiantza daukate.

7. Azkenaldian, gauza onak izan ezik, denetarik esan da politikarien inguruan. Min egiten al dizu?

Bai, denak zaku berean sartzea ez da justua. Gehienak ahalik eta ondoen egiteko gatoz politikara; ikusi udaletan zenbat zinegotzik lan egiten duten musu-truk. Gutxi batzuk zikinduta daude, eta epaitu eta zigortu egin behar dira; gainontzekoei errespetua zor zaie.

8. Nola konpondu gizartearen eta politikarien arteko hutsunea?

Ez da erraza, hutsune hori gero eta handiagoa delako. Baina politikariok dagokigu gizartera hurbiltzea, jendeari entzutea eta ahal den heinean arazoak konpontzea. Horretarako aukeratu gaituzte.

9. Moda kontuak gustuko ei dituzu. Tendentziak beti kontrolpean?

Moda gustuko dut, eta saiatzen naiz ezagutzen momentuko tendentziak. Baina egun moda bakoitzak nahi duena da.

10. Aspaldian baduzu astirik igerian egiteko?

Ez. Ezta beste hainbat gauzatara ere. Baina tartetxo bat hartzen dudanean saiatzen naiz bizikletan ibiltzen edo korrika egiten.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



Aurkia eta ifrentzua

Ez dago aurpegi bigabeko txanponik, ez arantza gabeko larrosarik. Horixe da euskararen halabeharra ere, itxuraz. Ekainean, adibidez, Europarlamentuak Europar Hiritartasun sarietako bat Euskaltzaindiari eman dio. Europatik egurra baino ez datorkigunean, Euskaltzaindia saritzea harrigarria bezain pozgarria da.

Aldiz, Osakidetza duen euskara-eskaintzaren plana makalaldi luze batek jota dabil Berriak ekarri berri duenez, jokaera horretan gaisoen, liderrik eza bera dela, salatuz.

Hegoaldean hauts handirik harrotu ez duena da beste hau, berriz: Baionako suprefetak Hendaiari ikastola berria egiteko baimena ukatu dio. Ez, itxurak itxura, Baionako suprefeta ez da Wert, Dalennes jauna baizik, baina arrazoi osoz pentsa daiteke "c'est la même chose la campana que la cloche", hau da, biak direla ipurbeltz, hala Wert nola Wertzea.

Euskaldunoi, poz-irririk ederrena, baina, Interneteko .eus domeinua lortuak eragin digu. Datorren udaberrietik aurrera .eus marka eskura izango dugu Interneteko itsasoan. Horrek harrotasunez ere betetzen gaitu, bai horixe!



Bizikleta da errepidean ibilgailu ahulena. Arretaz eta argi ibili.

Errespetu dezagun. Errespetu gaitzazu.



Ikusi bideoa: goiena.net/gaia/errespetatu

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena